

Herririk Herri |7|

Eskolako patioa 8.000 metro karratu handitzeko lanei ekin diete Berrizen

Ekonomia |10|

EMA enpresako EREak 15 behargin kaleratzea aurreikusten duela salatu dute



Berbaz |9|

Itziar Garitagoitia: "Euskara indartzeko gauza asko dago oraindik egiteko"

Artxibo historikoa on-line Durangon, uztailetik

> Aitziber Irigoras alkateak azaldu duenez, 58.000 artxibo digital jarriko dituzte Interneten

> Artxibo historikoak 1550etik 1979ra bitarteko materiala jasotzen du

3

Antzinako Eztegua antzeztuko dute Durangoko kaleetan zehar domekan

KULTURA • Kriskitin dantza taldeak Antzinako Erako Ezteguaren antzezpena antolatzen duen laugarren aldia da aurtengoa. Taldeko musikari eta dantzariekin batera, hainbat herritarrek ere parte hartuko du Durangoko Euskal Astea itxiko duen ekitaldi honetan. 14

AHTaren obregatik lurra hondoratu izanak San Andres auzoko bizilagunak kezkatu ditu

Durangaldea • Abiadura Handiko Trenaren lur azpiko tunela eraikitzen dabiltza Larrinagatxu eta Orozketa artean. Tunelaren goialdeko lur zati bat hondoratu egin da Iurretako San Andres auzoan, eta astelehenean ADIFeko ordezkariak bertaratu ziren ingurua ikuskatu eta hesitzera. Bizilagun batek salatu duenez, "astegunetan egunero hiru eztanda izaten dira". ADIFeko iturriek jakinarazi dutenez, arazoak ez dira eztagandatik sortu; asteburuko eurite gogorak eta lurraren konposizioa direla arrazoia azaldu dute.

2



Kepa Aginako

• **Zaldibar**

Solabariako lauburua kentzea salatu du Ezker Abertzaleak

7

• **Atxondo**

Parte-hartzea aztertzeko autodiagnosiaren aurkezpena

6

• **Abadiño**

Artzai txakur trebezia txapelketa domekan Urkiolan

6

• **Mañaria**

Mutxate harrobiko zuloari buruzko galdera

4

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TREBINAK

Salmenta eta konponketa

HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

AHTaren tuneleko lanen ondorioz, lur zatia hondoratu da San Andres auzoan

Larrinagatxu eta Orozketa artean dabilta tunela egiten; ADIFek ingurua hesitu zuen astelehenean

Abiadura Handiko Trenak lur azpitik zeharkatuko du Iurretako San Andres auzoa, eta lan horien ondorioz, —hainbat leherketa egiten dituzte harria zulatzeko— tunelaren goialdeko lur-zati bat hondoratu egin da. Inguruan bizi den baserri batek argitu duenez, “asteburuan ez dute lanik egiten”, beraz, aurreko astean hondoratu zen lurra.

Astelehenean ADIFeko hainbat ordezkari bertaratu ziren zuloa aztertu eta ingurua hesitzeko. ADIFeko iturriek jakinarazi dutenez, zuloak “ez da ezta detatik eratorri”: “Euriteek eta eremu hartako luraren konposizioak —luti-tas eta areniska— eragin du lurra hondoratzea”. Eremu hartako lanak “geratuta daude eta eremua egonkortzean jarraituko dugu” Horretarako “beharrezko neurria guztiak hartuko dira”.

Bizilagun batek salatu du aste barruan “egunero hiru eztanda”

izaten direla obretan, bat zortzi ordurik behin. Etxean igartzen ei dituzte ezta detatik eragindako dararak: “Baserri osoari eragiten dio eta, batez ere, etxeko kristaletan igartzen da”.

Auzotar batek dioenez, ezta detatik “etxe osoari eragiten diote; leihoei gehien”

AHT Gelditu Elkarlanak “200 metrora hainbat baserri” daudela gogoratu du

AHT Gelditu! Elkarlanak gertatutakoa salatu du asteon, eta landa horretatik “200 metrora hainbat baserri” daudela gogoratu: “hondamendiren bat eragiten ez duten arte ez dute txikizia geratuko?” galdetzen du AHT Gelditu! Elkarlanak.



San Andres auzoan behera egin duen zuloak hiru metro eskaseko diametroa du.

Gasteizko Bideko bizilagunak Bestalde, Tabiran amaituko den tunelaren magalean etxebizitza biko eraikina dago. Behin baino gehiagotan salatu du hango bizilagun Alex Barrenetxeak astegunetan “ia gauero” tunela egiteko leherketak pairatzen dituztela: “Baimendutako dezibelio kopurua bikoizten dute”. Jakin dutenez

Gasteiz Bidean bizi diren bizilagun bik argi dute: “Gauetan lanak geratu ezik, auzitegira joko dugu”

tuneleko lanek “beste hiru hilabete inguru iraungo dute”, eta dagoneko “ez dugu beste inora joan gura”. Gauetan lo hartzeko “pilu-lak hartu behar ditut, bestela ezinezkoa da”. Auzotar biek abokatu kontratatu eta ADIFI gauetan lanak geratzeko eskatu diote. Erantzuna ezezkoa bada, argi dute: “Auzitegira joko dugu”. ■ J.D.

Leginetxeko baserrian sartu zirenetik hilabete joan da

ADIFek baserria eraitsi gura du biaduktua egiteko; gazteek ez dute handik irteteko “inongo asmorik”



Leginetxe auzoko baserrian eman zuten prentsaurrekoa.

Orain hilabete, hainbat gaztek Zornotzako Leginetxe auzoko baserri bat okupatu zuten. Baserria eraitsi egin gura du ADIFek, AHTaren biaduktua eraikitzeko. Gazteek ez dute baserria uzteko asmorik, nahiz eta “polizia mota guztiak gu beldurtzen saiatu diren. Aste honetan ADIFeko ordezkariak, Ertzain-

tzak lagunduta, “delitu ekologiko-gatik salaketa eskura ematen saiatu dira baserrian dagoen jendeari, baina ez dute lortu”.

Prentsaurrekoan, ekainaren 19an, AHTaren kontra Bilbon (17:30ean Bihotz Sakratu plazatik) egingo duten manifestaziora joateko deia ere egin zuten. ■ J.D.

Eskualdea argituko dute San Joan suek

Tradizioari eutsiz, suaren argitara hainbat ekimen egingo dituzte Durangalde osoko herrietan

Hilaren 23an, San Joan bezperan, eskualdeko herrietan hainbat ekimen garatuko dira, gaua argituko duten suen epelean. Durangon, San Fauston, 20:30 inguruan kalejira abiatuko da Astolabide kalera. Han, 21:00etan, sua piztuko dute. Auzotarrek mozzoratuta joateko gonbita egin dute. Herria Auzo Elkartek, aldiz, aurten ez du surik antolatuko, “leku faltagatik”.

Elorri, plazatik San Joana-igoko dira, 16:30ean. Han askaria egingo dute, eta pailazoen giroa alaituko dute. 22:00etan suzko zezenak, sua eta erromeria egingo dituzte.

Zaldibarren, Olazar futbol zelai zaharrean sua egingo dute, 22:00 inguruan. Mallabian lehenengo isiotuko dute sua herri-gunean. Iluntzean, Izar Gorri elkarteak barbakoia egingo du

plazan. Ekitaldi sinboliko moduan Udaltzaren prozesuaren kontrako testua sutara botako dute. Iurretan 20:00etan herri-afarian batuko dira herritarrak; ondoren, Luhartzekin erromeria dantzatzeko aukera eta Gaztetxeok eta Gure Barikeok prestaturiko

antzerki-akelarrea izango dute ikusgai bertaratuak guztiek.

Mañarian, 17:30ean, umeentzako jolasak prestatuko dituzte; San Joan sua txistulari eta dantzari-ek girotuko dute. Izurtzan, 21:30ean jan-edana egingo dute Santo Tomas parkean. Garain 23an txopoa jasoko dute, eta 24an, eguerdian, meza dago.

Atxondoko Axpen txopoa jaso eta irrintzi lehiaketa egingo dute. San Joan egunean, 11:30ean, meza dute eta ondoren luntxa.

Otxandion lau su piztuko dituzte: Basogain, Elizabarrin eta Errabalen eta plazan. 22:00etan kalejira egingo dute. ■ J.D.



San Joan suak pizteko tradizioa errotuta dago eskualdean. J.F.



DURANGO

Uztailetik aurrera, artxibo historikoak Interneten ikusgai

Besteak beste, udaleko aktak eta Andra Mariko eta Santa Anako kontu-liburuak kontsultatu ahalko dira

Uztailean zehar, Durangoko artxibategi historikoa Interneten kontsultagai (58.000 artxibo digital) ipiniko dutela jakinarazi du, asteon, Aitziber Irigoras alkateak. Dagoeneko digitalizazio prozesua amaitzeaz dago. 1550etik 1979ra arteko materiala ikusteko moduan ipiniko dute; Santa Anako eta Andra Mariko kontu-liburu guztiak kontsultatzeko aukera ere egongo da.

Maileguan hartutako liburuak norberak entregatzeko sistema ere estreinatuko dute

Liburutegiko zerbitzua hobetuguran, maileguan hartutako liburuak norberak entregatzeko sistema ere ezarriko dute. EAEn


mota horretako sistema abian ipiniko duten lehenengo herria izango da. Bere sasoiari, erabiltzaileak ordenagailu bitartez —bitartekari barik— maileguak egiteko aukera eskaintzen bigarrenak izan ziren, Arrasateren atzetik.

Liburutegiko lehenengo urteko balorazio "oso positiboa" egin du Irigorasek. 290.000 erabiltzaile izan dituzte; 800 egunero, batez beste. Orain liburutegiak ia 47.000 materialeko funtsa du, iaz arte baino %12 gehiago.

Maileguei dagokionez, urtebetean 62.500 mailegu egin dituzte (%10 gehiago) eta maileguen %68 erabiltzaileek eurek egin dute. Liburutegian garatutako ekintzen berri ere eman dute: umeentzako 68 ekintza (1.700 lagun) eta helduentzako 116 ekintza (2.000 lagun) egin dituzte. ■ J.D.

PSE-EE: "Igerilekuko mantentze-lanak sostengaezinak dira"

Alderdi sozialistak erantzukizunak eskatu ditu igerilekuko azpiegituren "kudeaketa txarragatik"



PSE-EEren ustez, "urte bi baino gehiago" atzeratu dira lanak.

Igerilekuko obrak 2006ko uztailean 20an esleitu ziren, 8.830.737 euroko diru-atalagaz, eta 19 hileko exekuzio epeagaz. Pilar Rios zinegotzi sozialistak azaldu duenez, "azkenean, 15 milioi euro baino gehiagoko kostua eta urte bi baino gehiagoko atzerapena izan du".

PSE-EEren ustez, "mota horretako lan-esleipen engainagarriei 'nahikoa da' esateko ordua da, emaitzak ezagutzen ditugu-eta; ez dira epeak bete, ez eta eskaintza ekonomikoa eta bermea ere".

Horrez gainera, alderdi sozialistak EAJk osatutako gobernu taldeak "ezelako neurri legalik har-

tu ez izana" salatu du. Bestalde, Landako II-ko mantentze-lanak "ez dira eroangarriak".

"Horrelako azpiegiturak mantentze eta garbiketa erraza izango duten materialekin eraikita egon behar dute, eta ez dira hain garestiak izan behar". Salatutako guztian "aurreikuspen eta eraginkortasun falta" ikusten dute. ■ J.D.

Pilar Rios zinegotzi sozialistaren ustez, "aurreikuspena eta eraginkortasuna" falta izan da

OTXANDIO

Astrologiaren gaineko hitzaldia gaur Kultur Etxean

Udaleko Kultura Sailak astrologiari buruzko hitzaldia antolatu du gaur, 19:30ean, Kultur Etxean. Daniel Saezek emango du hitzaldia. Saez astrologia gustuko duen zaletua da, eta ikastaroak eman izan ditu hainbat herritan.

Saezek ilargiak eta izarrek gizadian eta hauek egituratzen duten gizartean zer eragin duten azalduko du, modu erraz eta ulerterrazean.

Daniel Saezek emango du berbaldia, 19:30etik aurrera, Otxandioko Kultur Etxean

Hauxe da Otxandion tanke horretako hitzaldia antolatzen duten lehenengo aldia. Datorren egunean San Joan eguna izango da, eta "misterioari lotutako eguna denez, ildo horretako hitzaldi bat antolatzeari egokia iruditu zitzaigun", azaldu du Txomin Bengoa kultura zinegotziak. ■ J.D.



Lehenengo urtean 290.000 bisitari izan ditu Liburutegiak.

MAÑARIA

Mutxate harrobian agertu den zuloari buruzko galdera

Maiatzean legebiltzarrera eraman zuen harrobian agertu den zuloaren gaia Maeztu legebiltzarkideak

Blanca Urgell kultura sailburuak idatziz erantzun zezan eskatuz, "Mañariko Mutxate harrobian agertu den kobazuloaren inguruko" galdera luzatu zuen maiatzean Dani Maeztu legebiltzarkideak. Jaso dute kultura sailburuordetzaren erantzuna.

Harrobiaren ustiaketak orain arte ezezaguna zen kobazulo bat bistaratu duela azpimarratu zuen Aralarrek Legebiltzarreko mahaian aurkeztutako idatziak, eta, errepidetik ikusita, "handia dirudiela". Aipatutakoa aurkikuntza geologiko eta arkeologiko garrantzitsua izan daitekeelakoan, aurkikun-

tzaren berri ba al duten eta zer egiteko asmoa duten galdetu zion Aralarrek Jaurlaritzari.

Leizearen berri Aralarren galderaren ondorioz izan duela erantzun dute kultura sailburuordetzatik: harrobiak ondare geologikoan eragin ditzakeen kalteak neurtzeko egin zuten azterketan 19 kobazulo hartu zirela aintzat azaldu dute, eta Aralarrek aipatzen duen kobazuloak ondoren agertutakoa behar duela izan. Azterketa hura egin zuen teknikariagaz hartuemanetan ipini dela eta datozen asteetan bertara bisita egingo dutela dio Kultura Sailak. ■ I.E.



Errepidetik argi ikusi daiteke harrobian agertu den kobazuloa.

Kirikiño abesbatzak emanaldia du, bihar, urteurrena ospatzeko

Abesbatzaren eta Andra Mari dantza taldearen 25. urteurrenaren ospakizunen barruko ekitaldia

Bihar, ekainaren 19an, Andra Mari elizan da Kirikiño abesbatzaren eta Andra Mari dantza taldearen mendelaurdenak ospatzeko antolatutako abesbatzaren emanaldia.

Orain 25 urte sortu ziren kultur talde biok "beti bezain indartsu jarraitzen dutela erakusteko", datozen asteetarako antolatu dituzten ekitaldietan lehenengoa da bihar 20:30erako prestatu dutena. Andra Mari dantza taldearen urteurrena ospatzeko, abuztuaren 14rako dihardu herriko hainbat dantzari alardea prestatzen.

Ekainaren 19an, bihar, 20:30ean da Kirikiño abesbatzaren emanaldia

Abesbatzaren aspaldiko lagunekin, 25 urteotan talderik igaro diren abeslariekin, jardungo dute biharko emanaldian: gaur egun abesbatza osatzen duten hamabost emakumeak eta taldeko kide izandako beste horrenbeste batuko dira biharko hitzorduan, eta organu eta txistu doinuak izango dituzte ahotsak laguntzen.

Kultur talde biek 25 urte bete dituzten honetan, "indartsu" daudela erakutsi gura dute

Kantaldien tartean, abesbatzaren historia laburbiltzen duen bideo laburra emango dute, eta taldea lagundu duten guztiei euren esker ona adieraziko diete. ■ I.E.

IZURTZA

Jaien egitaraua zehazteko batzarra gaur, udaletxean

Gazte lokalean elkartzeko diren herriko gazteekin jardun dute udaleko ordezkariak azken asteetan irailko jaien egitaraua prestatzen. Gaur, gobernu taldeak adierazi duenez, gazteek propo-

satutako ekimenak udaleko Kultura Batzordeko mahaiaren gainera eroatea izan da hurrengo pausua: egitaraua, horrenbestez, onartuz emateko asmoz.

Printzipioz, esan digutenez, iazkoagaz alderatuta ez dute jaietako aurrekontuan murrizketarik egitea espero: iraileko Andra Mari jaietako ohiturazko ekitaldiak mantentzeko asmoa dutela, eta urtero legez aurten ere berezitasunak eta berritasunak izango direla diote. ■ I.E.

IURRETA

Saneamendu-sarea berritzeko beharrean

Aste bi inguru da herriguneko sarreratik (gasolindegi ingurutik) Arriandiko zubirainoko oinezkoendako bidean saneamendu-sarea berritzeko lanetan dihardutela. Tokiko inbertsioetarako diru-poltsatik 400.000 euroko diru-laguntzagaz dihardute.

Gune horretan, oso zaharritua zegoen hoditeria berriztuko dute lanekin, eta udal arduradunek jakinarazi dutenez, bidegorriaren zoria aldatzeko ere aprobetxatuko dute: oinezkoen bideko zoruan, orain arte zegoen harriaren eta harearen ordez, asfalto gorria botako dute.

Eguraldiak asteon baino gehiago laguntzen badu, behintzat, obrak hilabete barru amaituta egotea aurreikusten dutela azaldu dute Udalean. ■ I.E.

GARAI

Sanjuanak ospatuko dituzte hurrengo asteburuan

Eguaztenean, hilaren 23an, txopoa igota jaiari hasiera emango diete Momoition, San Juan ermita inguruan. Patroiaren egunean meza izango da, 12:00etan. Dena dela, egitaraua asteburuari begira eratu dute, batez ere.

Hilaren 26rako meza, dantzariak eta igel txapelketa daude iragarrita

Zapatuan, ekainaren 26an, Lur Kortak ipuinak kontatuko ditu, arratsaldeko 17:00etan. Gero, herri-afarian batuko dira garaitarrak, gaueko 21:00etan. Domekan 12:00etako mezak zabalduko du eguna, eta ondoren dantzariak eta igel txapelketa daude iragarrita, jaiari amaiera emateko. ■ M.O.

eskatu ezazu Plateruenean

menuBONOA

6. menua opari



**EROSTEN DUZUN IBILGAILUAREN JATORRIA
ZIURTATZEN DIZUT.**

ETA BETETZEN EZ BADUT, SAN MAMESERA GONBIDATZEN ZAITUT.

*Andonik
esana*

Andoni Baños,
Goursako Aukerako
Ibilgailuen Arduraduna.

www.gaursaautoak.com

**RENAULT
OCASIÓN**

ZUK DENA NAHI DUZULAKO.



GAURSA ARRIANDI 12. TEL. 94 620 33 00. IURRETA. GRAN VÍA 65. TEL. 94 441 74 50. BILBAO.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTO. BIZKERRE S/N. TEL. 94 430 68 81. GETXO.

ATXONDO

Axpen Sanjuanak ospatuko dituzte eguaztenetik domekara

San Juan bezperako suekin hasiko dituzte, urtero legez, Axpeko jaiak. Txopoa eguaztenean bertan altxatu, eta berakatz-zopa eta txokolata banatuko dute. Irrintzi txapelketa egingo dute gero. San Juan eguneko meza 11:30ean izango da. Igel txapelketa eta luntxa egingo dituzte gero, eta 16:00etan briska txapelketa.

Barikuan Atxondoko nagusien eta beteranoren arteko esku pilota partiduak jokatuko dituzte; finalurrekoak. Ondoren, txokolata banatuko dute.

Zapatuan, herri-afaria

Zapatu arratsaldean mus, bakailao eta tortilla txapelketak egingo dituzte. Gauean herri-afaria egingo dute; gura duenak frontoian afaldu ahal izango du. Jai batzordeak ogia, postrea eta kafea jarriko ditu. 22:30ean jaialdia hasiko da Kriskitin dantza taldeagaz, eta gero Luhartzek erromeria eskainiko du. Domekan, umeen egunean, Andasto dantza taldea, magoa eta jokoak izango dituzte. ■ A.U.

Herritarrek parte hartzeari buruz esandakoak batu dituzte

Elkarte eta pertsona ugari gaz batu eta gero, autodiagnosi-txostena aurkeztu dute

Diaagnosia barik autodiagnosia dela diote. Herriko elkarte eta taldeekin batu eta Atxondon parte-hartzeari buruzko hausnarketa bultzatzen ibili

Udalean eskatu daiteke txostena. Bertako webgunean eta Liburutegian ere badago

dira hileotan 'Parte-hartze eta komunitate garapena' masterreko ikasleak. Emaizta aurkeztu dute dagoeneko. Txosten baten batu dituzte herritarrek parte-hartze



Parte Hartuz taldearen bidez ikerketa-lana egin duten ikasleak

ri buruz kontatutakoak. Herrian gauzak antolatze eta elkarlanean ibiltzeko proposamenak ere baditu txostenak.

Proposamenen artean, hiru nabarmendu ditu Parte Hartze-ko taldeak: Batetik, udal buletinean eta webgunean elkarte eta taldeek espazioa izatea proposatu dute. Datorren urterako herriko jarduera guztien egutegia edo urtekaria egitea ere proposatu dute. Herriko edozein ekimenetan pedagogia parte-hartzaileagaz jardutea izango litzateke hirugarren proposamena. Horretan guztian herriko "kolore guztiek" par-

Herritarrek esandakoetatik parte hartzea bultzatzeko proposamenak batu dituzte

te hartzea funtsezkoa dela diote txostenaren egileek: "Aniztasunik ez badago gaitza da parte hartze-ko prozesu bat martxan jartzea".

Hirigintza Plana

Datorren martitzenean, bestalde, Atxondoko Hirigintza Planaren proposamena aurkeztuko du gobernu taldeak. Aurkezpena 19:00etan hasiko dute udaletxe-ko batzar aretoan. ■ A.U.

ELORRIO

Ekintza Planaren gaineko azterketa ikusgai webgunean

Tokiko Agenda 21aren ebaluaketa eta jarraipen programako datuen txostena publikatu dute

Udaleko webgunean ikusgai ipini dute Elorrioko Tokiko Agenda 21aren barruan egindako azterketaren txostena. Ingurumenaren zein beste arlo batzuetan azken urteetan egon diren joerak jasotzen dira txostenean.

Esaterako, 2007tik hona apur bat jaitsi egin da foro parte-hartzaileetara joan den jende kopurua: 2007an 50 lagun joan ziren;

Esaterako, udalerraren gas natural eta elektrizitate kontsumoa mantendu egin da

2008an 103, eta ia 50. Dena dela, kontuan hartu behar da 2008an Denon Artean partaidetza prozesua gauzatu zutela.

Txostenean 1997tik 2008ra urtez urte langabezia izan ziren biztanle aktiboen ehunekoak datoz. 2003an egon zen langabetu gutxien (%3,3). 2007tik 2008ra ia hiru puntutan hasi zen (%4,2tik %7ra).

Bestalde, beste datu bat aipatzearen, udalerraren gas natural eta elektrizitate kontsumoaren datuak mantendu egin dira azken hiru urteetan. Datozen urteetan joera gutxitzea izango dute helburu. ■ J.D.

ABADIÑO

Artzain-txakurren trebezia Urkiolan eta Mendiolan

Mendiolako jai batzordeak eta udalak antolatu dute XV. Artzain Txakur Trebezia Txapelketa

Saio bi egingo egingo dituzte artzain eta txakur parte-hartzaileek, eta ekainaren 20an, domeka honetan, da lehenengoa: goizeko 11:00etan, Urkiolan izango da lehenengo ekinaldia.

Bederatzi artzainek jardungo dute txapelketaren hamabosgarren edizioan; Iker Azkorbeitia, Aitor Urien, Jose Urien, Asier Zabala, Kepa Ardanza, Karlos Ardanza, Jose Migel Etxebarria, Xabier Urien eta Angel Azkorbeitiak. Jabeek irakatsitako abildadeak erakusten, artzainekin batera beste horrenbeste artzain-txakur izango dira protagonista.

Domeka honetakoaren ondoren, uztailaren 10ean, Mendiolan egingo dute bigarren saioa. Arratsaldeko 17:00etan izango da Mendiolako hitzordua. ■ I.E.

Bi saio egingo dituzte; domeka honetan, 11:00etan, Urkiolan da lehenengoa

Bederatzi artzain eta beste horrenbeste txakur euren trebetasuna erakusten

MALLABIA

Udalbiltza auzia salatze-ko mozioa eztabaidagai ekainaren 24an

UEMA Egunaren balorazio osoa egin du Mallabiko Udalak. Jaialdia, zapatuan, ehunka lagun gerturatu zirela nabarmendu dute.

UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) asanbladak Udalbiltzaren auzibidea salatze-ko mozioa aho batez onartu zuen. Fiskalak eta herri akuzioak hautetsi eta behargin izan diren 22 lagun kartzelaratzeari eskatzen dute. Mallabiko Udalak ere, Durangaldeko beste udal batzuen moduan, Udalbiltza auzia salatze-ko asmoz mozioa eztabaidatuko du ekainaren 24ko ohiko bilkuran. ■ J.G.

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISANU ERARA

ESPEZIALIZATUA

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateylexpe.biz



ZALDIBAR

Iritzi kontrajarriak lauburuaren ezabaketa dela-eta

Ezker Abertzaleak kontzentrazioa egingo du 'Lauburua bai, Euskal Herria bai' lelopean

Solabarria udal futbol zelai-ko lauburuak kendu dute, eta "astakeria" honen aurrean Ezker Abertzaleak kontzentrazioa egingo du, "desadostasuna adierazteko", zapatuan udal-letxe aurrean, *Lauburua bai, Euskal Herria bai* lelopean.

Idoia Mendiolarai Zaldibarko alkateak adierazi duenez, "niri Solobarriako lauburuak ez zidan trabarik egiten, baina ezabatzeko erabakia hartu dut kalean komentario eta kritikak zebiltzako; ikur nazionalistatzat jotzen zuten, eta polemikagaz bukatzeko". Gainera, "hobeto ikusten dut

udal armarrira ipintzea". Futbol zelaiak "denona" dela eta herrian denetariko ikuspuntuak daudela adierazi du alkateak, eta hori "errespetatu" behar dela.

Ezker Abertzaleak "neurri faxistatzat jo du", eta, adierazi duenez, "PSOEek eskatuta" kendu dute lauburuak. Alkateak gezurtatu egin du hori horrela denik.

Ezker Abertzaleak "astakeriatzat" jo du lauburu ezabatu izana

Ezker Abertzaleak lauburuak alkatearen aginduz ezabatu dela badio ere, "eskutik PNV, PSOE eta GI doazela" dio: "PSOEek geroago eta itsutuago dihardu Euskal Herria espainolizatu guran, berdin zaio

Alkateak adierazi duenez, "futbol zelaiak denona da, eta herrian denetarikoak gaude"

Zaldibarko argazki zaharren erakusketa antolatu du Ilargi taldeak

1890. urtetik gaur egun arteko argazkiak bildu ditu Ilargi argazki taldeak bere 25. urteurrenean

Ilargi argazki taldeak 25. urteurrena ospatzeko Zaldibarko argazki zaharren erakusketa antolatu du ekainaren 19 eta 20an. 1890. urtetik gaur egunera arteko argazkiak

Argazki kamera zaharren erakusketa ere antolatu dute Udaletxe plazan

ikusteko aukera izango dute Udaletxe plazara hurbiltzen direnak. Jose Luis Fernándezek azken 40 urtetik hona egindako argazkiak ere bertan ipiniko ditu: "Ez ditut

zenbatu, ugari ditut-eta". Jose Luis Fernándezek argazki kamera "lehen soldatagaz" erosi ei zuen, "15 urte gaz."

Fernándezek erakusketara eskolako argazkiak, umetan jolastan zutenekoak eta gaztetakoak eroan ditu. Batek baino gehiagok bere burua hor ikusita "sorpresa" hartuko duela aipatu du: "Jasandako aldaketak ikusiko ditugu, eta barre egingo dugu". "Argazkiek azken urteetan izan dugun bilakaera islatzen dute", dio.

Argazki kamera zaharren erakusketak ere antolatu dute. ■ G.A.



Solobarria futbol zelaiaren, Zaldua kirol elkartearen ikurrak gain lauburuak ere bazegoen.

euskara, eguraldiaren mapa, eta edozein egunetan txapela". Gainera, "lana badutela" adierazi du Ezker Abertzaleak herrian lauburu bat baino gehiago dagoelako. Idoia Mendiolarai Zaldibarko alkateak adierazi duenez, "beste

2008an, Zaldua kirol elkartearen ikurrak batera, lauburuak margotu zuten

lauburuak dauden lekuan geratu-ko dira".

2008ko urrian inauguratu zen Solabarria zelaiak eta Kirol Elkarteak eskatuta Zaldua Kirol Elkartearen ikurra eta izenagaz batera lauburu bat margotu zuten. ■ G.A.

Txistulari eta dantzarien historia dakar Lasuenek

Balendin Lasuenek argitaratu duen 29. liburuxka datorren astean jasoko dute herritarrek

Balendin Lasuenek *Zaldibarko txistulari eta dantzariak* izenburua duen 29. liburuxka argitaratu du; orain 10 urte hasi zuen bildumaren "azken aurrekoa". Liburuan Zaldibarko txistulari eta dantzarien historia jasotzen du, lehenagoko argazkiekin, "Zaldibarko ez zuen dantzari tradizioirik lehenengo dantzari taldea 1931n bigarren errepublika garaian osatu zuten arte". Gaur egun, baina, Lasuenek adierazi duenez, "hutsa da euskal dantzek Zaldibarren bizi duten egoera."

"Gaur egun hutsa da euskal dantzek Zaldibarren bizi duten egoera"

Bildumako azken alea Gabonetan argitaratuko du, eta "ezberdina izango da"



Lasuenek argitaratu duen liburuxkak hainbat argazki biltzen ditu.

Azken bi hamarkadatan ia ez dugu gure plazatan betidaniko dantza talderik ikusi".

Herriko lehenengo hiru txistularien biografia ere ezagutarazi du, eta, bestalde, "gaur egun finkatuta" dagoen eta orain dela 55 urte osapatzen den Durangaldeko Txistulari Egunari buruzko datuak ere biltzen ditu. Zaldibarko herritarrek liburuxka datorren astean jasoko dute.

Bildumako azken alea Gabonetan argitaratuko du Lasuenek; "ezberdina izango" ei da. ■ G.A.

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

DIBA
KOOPERATIBA

Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

A. Uireta
pedagogoa

- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga
PODOLOGOIA 188. Elkargokidea

BERRIZ



Eskolako patioa handitzeko lanak orain hilabete hasi zituzten, eta urtarrila inguruan amaituko dute.

Eskolako patioa 8.000 metro karratu handituko dute

Eskola orduetan eskolakoek eta hortik kanpora herritarrek erabiliko dute patioa

Berrizko eskolako patioak 8.000 metro karratu gehiago izango ditu, Jabier Azpitarte Berrizko alkateak adierazi duenez, "aisialdirako gune zabala egongo da, eta bertan 500 metro karratuko estaldura ipiniko dute". Estaldura erdialdean gardena izango da, eta horrek argitasuna emango dio guneari.

Patioa handitzeko lanak orain hilabete hasi eta Azpitartek adierazi duenez, "urtarrila-otsailean amaituko dituzte". Lehenengo fasean sarbideak egingo dituzte, eta inguruan hesia ipiniko dute.

"Aisialdirako gune zabala egongo da, eta bertan 500 metro karratuko estaldura"

Eskola barruko "txapela" berriztuko dute, eta udan lan horri emango zaio lehentasuna

Aisialdi-gune hau "eskola orduetan eskolako ikasleek erabiliko dute, baina eskola orduetatik kanpora herritarrentzako" gunea izango dela dio Azpitartek.

Bestalde, eskola barruan dagoen "txapela" deitzen dioten patioa berriztu eta hiru urteko haurrek erabiltzeko planeta eta sateliteen jolas gunea egingo dute. Jabier Azpitartek azaldu duenez, "udan lan honi emango zaio lehentasuna, kurtsio hasierarako amaituta egoteko". Eskolako patioa handitzera 520.000 euroko inbertsioa bideratuko dute. ■ G.A.

Iaz baino jende gehiago batu zen Kultur Topaketan

Berrizko Bosgarren Kultur Arteko Topaketa Learreta eskolan egin zuten, joan zen domekan, eta Errumania izan zen aurtengo kultura nagusia.

Topaketan "iaz baino jende gehiago" elkartu zela adierazi du Gizarte Ongizateko teknikariak; "eskolako jangela beteta zegoen". Helburuak bete direla-eta, "oso positibotzat" jo dute aurtengo Kultur Arteko Topaketa.

Jaialdian hainbat kulturatako jendea batu zen; brasildarrak, marokarrak, senegaldarrak,

Ekitaldi ugarien artean Errumaniako gastronomia dastatu ahal izan zuten



Hainbat kulturatakoak elkar ezagutzeko gunea izan zen Topaketa.

DURANGO

Esgrima ikastaroa, uztailean, gaztetxo zein helduentzat

Uztailean zehar esgrima ikastaroa antolatu dute Landako kiroldegian. Gaztetxoek (8-11 eta 12-14 urte artekoek) martitzen eta eguen goizetan jasoko dituzte eskolak. Nagusiek, berriz, astelehen eta eguazten arratsaldetan. Izen-ematea 30 euro da, eta www.durangokirolak.net-en eginda daiteke.

Honako ikastaro hauetan parte hartzeko aukera ere bada: uztailean Landako kiroldegian: aerofit, spinbike, stretching, padel—gaztetxoentzako zein helduentzako—, tenis, aquagym eta aquabike ikastaroetan.

DURANGALDEA

On-line bidezko marketinaren gaineko jardunaldiak egunean

Durangaldeko Behargintzak *Merkataritza elektronikoa eta on-line marketina* izeneko jardunaldia antolatu du, hilaren 24an Behargintzako areto nagusian. Ekimena 09:30etik 12:30era garatuko da. Izena emateko azkenengo eguna hilaren 22a da (pymes.mdurango@bizkaia.org).

Jardunaldien helburua eskualdeko enpresei merkataritza elektronikoa eta marketinean jarduteko gakoak ematea da. Honako puntu hauek jorratuko dituzte, besteak beste: Internet enpresa munduan, webguneko diseinua eta ezaugarriak, on-line denda eta ordainketa moduak Interneten.

Denboraleak Durandaldean ez zuten kalte nabarmenik eragin

Eguaztenean alerta laranja izan genuen, eta eskualdean ere eurijasa handiak izan ziren. Bilbo inguruan, baina, okerragoa izan zen, litro gehiago bota baitzituen eta uholdea sortzeko arriskua izan baitzen. Otxandion 95,1 litro bota zituen metro karratuko egun osoan; Oizen 103,4; Iurretan 98,8; Elorrioren 80 eta Zornotzan 103,1 litro.

Bilbon eta Mungialdean gehiago eragin zuen denboraleak. Deustuan 130 litro bota zituen metro karratuko; Mungian 119,9 eta Punta Galean 107,4 litro.

GARAI

Lantziegoko dantza taldea Garain egon zen zapatuan



Garai dantza taldeak gonbidatuta eta ohiturari eutsiz, Lantziegoko dantza taldeak Garai bisitatu zuen joan zen zapatuan. Goizean, eguraldia lagun izan ez zuten arren, Elizabarriko eliza eta Momoitioko San Joanek nekropolia bisitatu zituzten.

Ondoren, herrira jaitsi eta triki-poteoan irten ziren, denak bazkaritara batu aurretik. Guztira, 70 bat lagun batu ziren bazkaritara, jakin eragin dutenez. Sabela polito bete ondoren, erromeriaren laguntzagaz dantza egin zuten Lantziegoko zein Garai dantzariak. Iaz Garai dantza taldea joan zen Lantziegora egunpasa.

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
 saltzan.com

gremioen koordinazioa
 urtiaga
Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea
Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Hemen agertu gura baduzu
deitu!

94 621 79 02

BERBAZ >

“Jendeak euskaraz egiteko giro atsegina sortu gura dugu herrian”

Euskararen erabilera bultzatzeko helburuagaz, Orraitio euskara elkarteak ekitaldi ugari antolatzen ditu

Itziar Garitagoitia Orraitio euskara elkarteko kidea da. Elkarteak 2004tik dihardu herrian euskararen erabilera indartzen. UEMA Eguna Mallabian antolatu dutela aitzakia hartuta, herriko euskararen egoeraren inguruan galdetu diogu.

Zelan joan da UEMA Eguna?

Balorazio ona egin dugu elkartean. Ehunka lagun bildu ziren Mallabian zapatuan, UEMA Egunean. Xabier Mendigureni aitortza egin genion. Iñaki Arregi ere gogoratu genuen, zelan ez. Oso lotura handia zeukan Mallabiagaz.

UEMAren barruan egoteak hobekuntzarik ekarri dio herriari euskara arloan?

Guk, euskara gaietan gabiltzanok, hainbat hausnarketa egiten dugu lanean ondo gabiltzan jakiteko. Herria UEMAn sartu zenean ordenantzak onartu zituen udalak. Paperean jartzen dituen guztiak berehala martxan jartzea gaitza dela badakigu. Mallabiko kartelean euskaraz bizi garela ikusiko du hona datorrenak. Herri txikia da

“Mallabian berba egiten den euskara oso bizia eta aberatsa delakoan gaude”

eta baserri mordo dauka. Euskara erabiltzerakoan markatu egiten du. Herrigunean bizi dira erdaldun gehienak; 1960ko hamarkadan etorritakoak gehienak, baina euren seme-alabek euskaraz egiten dute. Herri sarreran jarritako kartela denengana heltzen da. Nora jo behar dugun markatzerakoan beste leku batzuetan baino egin-garriagoa dela deritzogu.

Zelakoa da Mallabiko euskara?

Mallabiko euskara oso bizia eta aberatsa da. Auzo bakoitzak gertuen daukan herriko euskararen eragina dauka. Markinaldeko euskaragaz bat egiten du; Durangaldeagaz, Ermuagaz, Eibarregaz... merkataritza eta bestelako zerbitzuetarako hartu-eman handia dago. Erreferente bat dela deritzogu, eta horri eutsi egin behar diogu.

Zelan sortu zenuten elkarteak?

Mikel Zarate idazlea Mallabian abade izan zen. Orain urte batzuk omenaldia egin zioten Larrabetzun, eta hemen ere bai. Euskararen alde



“Aisialdirako gazteak beste herri batzuetara joaten dira, eta euskararen erabileran defizita dakar horrek. Gaztelerak gehiago erakartzen ditu”

behar handia egin zuen. Gainera, Debabarrenerako telebista baten proiekturako taldea elkartu ginen.

Zein izan da Orraitioren garapena?

Elkarteak martxan jarri genuenean hainbat ekintza antolatzeari ekin genion. Gehiago egitea gura genukeela esango nuke, baina parte-hartzea bultzatzea gaitza da. Bazkide kanpainak ere egiten ditugu urtero, jende gehiago batzeko elkartera.

Mallabiko euskara aztertu duzue...

Pello Mugarzak Mallabikoeuskarari buruzko doktoretza tesia egin zuen. Herriko euskara landu zuen hainbat grabaziogaz. Koldo Zuazo izan zuen zuzendari. Mallabiko euskarak zer ezaugarri dauzkan ikertu zuen. Behar guztia egindakoan, liburua kaleratu zuen elkarteagaz. Badihardugu Debabarreneko euskara taldeak Mallabiko euskararen azterketa egin du.

Itziar Garitagoitia •

- Mallabitarra
- Orraitio elkarteak

“Elkarteak herrian izen baten jabe egin da, eta programa bat egonkortu dugu”

Zer ekitaldi antolatzen duzue?

Bertso saioa antolatzen dugu urtero, udaberrian, pilotakuan. Erakusketa maiatzerako prestatzen dugu. Azokan talo postua jartzen dugu. Jaietan ere presente egoten ahalegintzen gara. Mendi ibilaldia udazkenerako uzten dugu, berbaldia urriko jaietan prestatzen dugu, Gaztainerre Egunean ere ekitaldia izaten dugu, eta jaialdia eratzen dugu Gabonetan.

Zer helburu dauzka elkarteak?

Izen baten jabe egin gara, eta programa egonkortu dugu. Behar indartsu bat plazaratzen dugunean ematen du egitekoak eginda daudela, baina gauza asko gelditzen dira egiteko. Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak antolatzen urtetik urtera dihardugu.

Mallabiko euskararen egoera ona da?

Aisialdirako, gazteak beste herri batzuetara joaten dira. Euskararen erabileran defizit bat dakar horrek. Gainera, Lehen Hezkuntzara arte herrian ikasten dute, baina gero beste herri batzuetara joaten dira. Erdarak erakargarritasun handiagoa izaten du eurentzat. Euskaraz egiteko aukera izaten da, baina parera etorri behar zaigu. Dakigunok euskaraz egiten ez badugu, bigarren hizkuntza moduan beste inork aukeratzea gaitzagoa izango delakoan gaude.

Elkarteak zer egin dezake arlo horretan?

Gura duguna jendeak euskaraz egiteko klima atsegina sortu gura dugu. Jendearen gustuko ekitaldiak izan daitezten saiatzen gara. ■ J. G.

EKONOMIA[>]

> ABADIÑO

EMAk 15 kaleratze aurreikusi dituela diote sindikatuek

Enpresak kaleratzeez gainera, lanaren %30ean eragingo duen Lan-Erregulazio Espedientea eskatuko du

Abadiñoko El Material Aislante (EMA) enpresak 15 behargin kaleratu eta produkzio sailean bi urterako lan erregulazio espedientea, lanaren %30 ean eragingo duena, eskatzeko asmoa du. Joan zen ostiralean bildu ziren enpresako zuzendaritza eta enpresa komitea, eta ez zuten akordiorik lortu. Sindikatuek diotenez, lan erregulazio espedienteen eskakizuna aste honetan "ofizialduko" du enpresak, eta ondoren kontsulten epea zabalduko da. Sindikatuak bilera egutegiaren zain daude.

Enpresak Lan Erregulazio Espedientea eskatu du, eta hilabeteko kontsulta epea zabalduko dute

EMA enpresan "gatazka egotzen dago, joan zen urtetik" eta gehiengo sindikala duen LABek azaldu duenez, "ez dugu kaleratze traumatikorik onartuko". Izan ere, izena eta abizena duten "15 kaleratze horietatik sei aurretiko erretiroak dira, beste bi bolondresak, baina gainerako zazpiak derri gorrezkoak". ELAk adierazi duenez, "aukeratu egin dute zer behargin kaleratu gura dituzten, ez dute irizpiderik jarraitu". Enpresa



EL Material Aislante enpresak 44 behargin izango ditu hartutako neurriekin.

beharginekin banan-banan hitz egiten dabilela salatu dute sindikatuek. ELAk dioenez, "diru eskaintza konkretuak egiten dabil, mehatxu tonuan".

EMA, eraikuntzako hodiak egiten dituen enpresan neurri hauekin 44 behargin geldituko

LAB sindikatuak adierazi duenez, "lanpostu guztiak mantentzeko borroka egiteko beharra dago"

dira, baina "krisiaren beldur dira". ELA gaur bilduko da afiliatuekin. LAB, berriz, beharginak informatzen dabil, eta "lanpostu guztiak mantentzeko borroka egiteko beharra ikusten dugu". Izan ere, "aurrerago kaleratze gehiago" egon daitezkeela uste du LABek.

> DURANGO

Turismo Bulegoan bisita kopuruak gora egin du aurten

Denboraldi honetan 2.272 bisita izan du Turismo Bulegoak; "egoitzaren leku aldatzeak" eragin ei du



Gehienek txangoak egiteko informazioa eskatzen dute.

Durango Turismo Bulegoak "oso ontzat" jo du azken bost hilabeteetan izandako bisitari kopurua. Izan ere, Durango Turismo Bulegoak datuen arabera, denboraldi honetan 2.272 bisitari izan dituzte, iaz baino 1.176 pertsona gehiago. Aste Santuan izan zuten bisitari gehien, baina Turismo Bulegoak jakitera eman duenez, aurtengo hilabete guztietan datuen hobekuntza egonkorra ikusi dute, 2009. urtearekin konparatuta. "Datu hauetan egoitzaren leku aldatzeak eragina" izan duela uste du Turismo Bulegoak.

Turismo Bulegora hurbildu diren bisitarien dagokionez, gehienak (%39,26) durangarrak izan dira eta, batez ere, Durangotik kanpoko informazioa eskatu dute, txango laburrak egiteko asmoagaz. Beste kasu batzuetan, lanak egiteko edo Durangora etortzekoak ziren lagun edo senitartekoentzat hartzen zuten informazioa. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegotik bisitarien %33 joan da Turismo Bulegora kulturekintzei, inte-

res-guneei eta jatetxeei buruzko informazioa eskatzera. Neurri apalagoan, Estatutik etorritakoek jo dute Turismo Bulegora (% 21,17; gehienak Katalunia, Madril eta Valentziatik) informazio "osoa eskatzera"; zer ikusi, non bazkaldu eta non lo egin daitezkeen ere galdetu dute. Inguruak bisitatzeko, Bilbo, Donostia, Gasteiz eta Urkiolara joateko zer garraio aukera dagoen galdetu izan dute.

Gehienak txangoak egiten edo bidea eginez egon dira Durangon. Frantziatik, Erresuma Batutik eta Estatu Batuetatik ere etorri dira atzerritar gehienak Durango turismo egitera, Turismo Bulegoak dituen datuen arabera. Durango bisitatzen duen gehienak (%67,67) helduak dira. ■ G.A

Turismo Bulegoan datuen hobekuntza egonkorra ikusi dute, hilabete guztietan, iazko datuekin alderatuta

■ kolaborazioa



Mauricio García
UGT sindikatua

Lan-erreforma: greba orokorra

Azken hileotan aurrez aurreko erasoak ikusten ari gara hainbat instituzio eta erakunderen eskutik (Nazioarteko Diru Funtza, Europako Banku Zentrala...) Espainiako ekonomiak neurriak behar dituela esanez: defizita, pentsioak, lan-merkatua... murriztea; hau da, ongizate estatua murriztea, beste estatu batzuentzako "adibide" legez. Gobernuak ezin izan diola presioari eutsi dio, eta sindikatuak entzungor eginez patronalaren ikuspuntuetara hurbildu da, neoliberalen eta krisi hau eragin duten finantza-sistemaren alde.

Oraindik ez dute dekretua argitaratu, baina alderdi politiko eta sindikatuak helarazi diete. Sindikatuok greba orokorra deitu dugu irailaren 29rako, ez baitute gure eskari bakar bat ere kontuan hartu, eta bai, ordea, patronalarenak: zertarako sinatuko zuten akordioak, legegilea euren alde egonda dekretuak mesede egingo zien jakitun?

Dekretu bihurtuko den dokumentuak ez du eskubide-dun eta kalitateko lan egonkorrik bultzatzen; ez du aldi baterakotasunik, kontratuen kateatzerik desagertarazten; "kaleratze expres"-ari atek zabaltzen dizkio; geografikoki mugitzeko eta lan-baldintzak aldatzeko aukera handiagoa ematen die enpresei; kaleratze kolektiboak gauzatzeko aukera ematen die enpresei, sei hilabetetan galerak izan dituztela esate hutsarekin, babes judizialik gabe; irabazi asmoko enplegurako agentzia pribatuei atek zabaltzen dizkie...

Oraingoan hau izan da, baina gehiago etorriko dira: negozio kolektiboak, jubilatzaioa... Langileok prest egon behar dugu, eta gure orainaren eta lan-merkatuaren etorriko diren geroaren alde borrokatu.

Bitartean, hemen aldrebes ari gara, sindikatu bakoitza bere aldetik. Batasuna beharrezkoa denean gaude zatikatuen, arazoarekin bat ez datozen tesiak eta argudioak inposatu nahian, zeregin nagusia langileak defendatzea denean, ongizate estatua baita jokoan dagoena.

Greba orokorraren garaia da, Espainian eta European.

KULTURA[>]

ANTZERKIA > JAIALDIA

Bost antzerki emanaldi asteburuan Iurretan

Lugarrenez egingo den Kalez Kale antzerki jaialdia aurkeztu dute asteon Iurretan, eta egoera ekonomiko gaitza bizi dugun arren, Udalarren "apustua sendoa" dela eta aurrerantzean ere egitasmoagaz jarraitzea dutela helburu azaldu du agerraldian alkateak. Hain zuzen ere, egoera ekonomiko honetan ere Kalez Kale bultzatzen jarraitzea eskertu dio Iurretako Udalarari Artekale elkarteak.

Doako sei kale-antzerki emanaldi ekarriko ditu Iurretako txokoetara jaialdiak. Hasteko, Patxin eta Potxin pailazoek *Kresalaren usaina* clown eta malabare emanaldia egin dute gaur arratsaldean, eta hiru emanaldi izango dira bihar, ekainaren 19an: Salitre taldearen *On egin*


mon amour, 13:00etan herrigunean; aldameneko argazkian agertzen den En la Lona taldearen *Momento Ridiccoli*, 17:30ean, Amilburu plazan; eta Markeliñeren *Terapia*, 22:30ean, San Migel plazan. Dantzari plazan, ekainaren 20an da, bestalde, Zirika Zirikus taldearen *Pantxika*.

Danborrada eta omenaldia
Ekainaren 21ean den Musikaren Egunagaz bat eginda, Maiztegi eskolako umeek danborrada egingo dute 15:00etan, astelehenen, eta mende laurdena bete duen Mikel Deuna kultur elkarteari omenaldia egingo diote egun horretan baita. Cotton Club Dixie Jazz Band taldearen 19:00etako emanaldiagaz emanango dute egitaraua itxitzat. ■ I.E.



12 Eskolarteko bertsolarien finala

Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan lehenengo eta bigarren egin zuten Aitor Bizkarra eta Txaber Altube abadiñarrek; Euskal Herriko finalean izango dira, bihar, Agurainen.



Yoko Out: musika eta irudiak

'Poeta hiltzaileen hamarkada' izeneko diskoa kaleratu du Yoko Out Durangoko musika taldeak. Eurekin egon gara Mallabiena auzoan duten entsegu lokalean.

BERTSOLARITZA > SAIOA

Hamabi bertsolari iurretarren arteko desafioa gaur gauean

Dantzari plazan egin dute seiná bertsolariren arteko desafioko hitzordua

Herriko sei bertsolarik talde batean eta beste horrenbestek "kontrako" taldean jardungo dute gaur, ekainaren 18an Iurretan antolatuta duten Bertso Desafioan. Dantzari plazako karpan, 22:00etan jarri dute desafioa entzun gura duten guztientzako hitzordua.

BERTSOLARIAK

- Eneko Abasolo 'Abarkas'
- Ander Salaberria
- Justo Alberdi
- Xabi Olaskoaga
- Erlantz Zaldunbide
- Mikel Gerediaga

VS.

- Gorka Lazcano
- Markel Onaindia
- Kristina Mardaras
- Unai Agorria
- Ander Duñabeitia
- Unai Badiola

Talde bakoitzak aukeratuko du sei bertsolarietako bakoitzak zer ariketa egingo duen txapelketan, bertsolari bakoitzak ondoen egiten duen ariketa burutuko du, desafioen eran: beste taldeak baino puntuazio handiagoa lortzeko helburuagaz banatuko dituzte taldeek kideen artean egitekoak.

Orain urte batzuk ere jokatu zuten Gure Barik bertso eskolan ibilitakoan arteko txapelketa: kanporaketa bat lehenengo eta fina-

la gauean egiten zuten, baina dena batera egingo dute aurten: gaur erabakiko da dena.

Herritarren arteko saio hura berreskuratzea erabaki dute gazteek aurten: bertso eskolako gazteek oholtzara igotzeko, eta mikrofonoari eta eszenatokiari "beldurra" kendu diezaioten laguntzeko helburuz berreskuratu dute desafioaren ohitura. Gaur egun, 14-15 urteko gazte bi eta 18tik 25era arteko beste lau bertsozale elkar-tzen dira bertso eskolan.

Txapelik ez

Irabazlea bertsolari bakarra ez denez izango, taldeko sei kideentzako apropos prestatutakoa izango da irabazleen saria: txapelik ez da egongo, baina seikotearentzako pentsatutako saria bai.

Ilusio handiz antolatutako saioaren inguruan, gazte eta bertsolarien artean badagoela herrian "piketxoá" dioskue Gure Barik bertso eskolakoei; iurretaren guztiak gonbidatu dituzte saiora. ■ I.E.

Bertsolari bakoitzak ondoen egiten duen ariketa burutuko du

Bertsolari gazteei oholtzaratzeko aukera ematea da asmoa

BERTSOLARITZA > TXAPELKETA

Eskolarteko Bertsolari Txapelketan jardungo duten abadiñar gazteak

Aguraingo Harresin kantatuko dute bihar Altubek eta Bizkarrak, Euskal Herriko eskolarteko finalean

LHko laugarren mailan zebiltzala, eskolako bertsogintza tailer-rean bertsozaletu ziren 13 urteko Aitor Bizkarrak eta 12 urteko Txaber Altube abadiñarrak. Gerora, urtebete inguru da "serioago-edo" dihardutela: astean behin Txan-

Aguraingo finalera "ondo pasatzera" doaz, beste ezerean gainetik

porta kultur etxeko bilera-gelan batzen dira, Eñaut Uruburu eta beste lagun batzuekin, bertsogintza-aren inguruan: "Eskolan gehiago izan da bertsogintza zer den ikas-tea, eta hemengo bertsoan egitea". Bost lagun inguru elkartzen dira astean behin Txanportan.

Ekainaren 19an Agurainen jokatu den eskolarteko finalera "ondo pasatzeko asmoz" doazela

dioskue, eta ez dirudi urduritasun handiagaz bizi dutenik: nerbioei dagokienez, "txarrena lehenengo bertsoaren lehenengo puntua izaten da", azaldu du Bizkarrak; "gero, hortik aurrera disfrutatu egiten dugu", gehitu du Altubek.

Martitzenean, Txanportan bertan batu gara bertsolari gazte biek eta Uruburu bertso eskolako irakasleagaz, eta asteon finala zelan prestatu duten galdetu digu; "bertsoan eginez", erantzun digu Altubek. "Gehienbat, orain arte egin ez ditugun ariketak lantzen jardun dugu", gehitu du Bizkarrak: "Adibidez, finaleko ariketa bat 'hitza emanda' kantatzea da, eta orain arte guk ez dugu askotan egin izan; horixe jardun dugu, batez ere, lantzen". Berba baten inguruan bertso bi botatzea da 'hitza emanda' ariketan bertsolari gazteek egin beharrekoa.

Finaleko 'hitza emanda' ariketa prestatzen jardun dute asteon

Aguraingo biharko saioan parte hartuko duten Euskal Herriko herrialde guztietako 14 bertsolaritik 6 pasatuko dira bigarren fase-ra. Bigarren faseko sailkatzen direnek emandako gaiaren inguruko agurra, 4 oinak emanda zortziko txikia eta ofizioko gaien bina-ka jardunda zortziko txikian bina bertso osatu beharko dituzte.

Bizkaiko finalean zelán kantatu zuten entzutean konturatu eiz zen Uruburu bertso eskolako irakaslea "bertsotan egin egiten dutela" abadiñar gazte biek: "Ondo, natural egin zuten". Bizkaieraz, euskara freskoan kantatu zuten.

"Ondo, natural" jardun zutela Bizkaiko finalean dio Uruburu irakasleak

Orain arte bertso idatzien txapelketara aurkeztu izan dituzte Bizkarrak eta Altubek euren lanak; lehenengoz jardungo du bat-bateko txapelketa batean Altubek bihar, eta iaz aurkeztu zen bat-batekora lehenengoz Bizkarrak.

Batak besteari zer ezaugarri on ikusten dion galdetuta, "Amets Arzallusen estilokoa da Aitor, eta bertsoei amaiera oso onak osatzen dizkie", dio Bizkarrari buruz Txaber Altubek: "itzelezko paranoiak botatzen ditu". Altuberi buruz Aitorrek, berriz, "Txaberrek daukana inoiz entzun dudana lexikorik zabalena da: beti harritzen nau hitz berriekin, sekula entzun bako bizkaierazko berbeekin", dio. ■ I.E.

Lehenengo bertsoa bota arte izaten eiz dute urduritasun handiena



Txaber Altube eta Aitor Bizkarrak, bertso-eskolako saio bat orduko. I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jose Julian Bakedano Zinegilea

Lekeitio Scheherezaden

Errusiako Tijvin-en, Nóvgorod-etik gertu, itsas-gizon militarren familia aristokratiko batean jaio zen Nikolái Rimski-Kórsakov (1844-1908). Oso gaztetatik agerikoa zuen Rimski-Kórsakov-ek bere talentu artistikoa, baina San Petersburgoko Errusiar Inperioaren Ontzigitza Eskolan ikasi zuen, eta Errusiako itsas-armadan sartu zen gero.

1861ean Balákirev ezagutu zuen, eta musikan serioago jarri zuen ordutik arreta. Balákirevek animatu zuen konposatu zezan, eta itsasoan ez zebilenean hura izaten zuen irakasle. Balákireven bitartez ezagutu zituen Rimski-Kórsakovek gero Bosten Taldea izenez ezagun egingo zirenetariko Cesar Cui, Borodín eta Múgorski konposatzaileak. Itsas-armadan zegoela egin zuen errusiar batek konposatutako lehenengo sinfonia. Ezaguna den orkestrarako *Sadkó* obra 1867an, eta 1872an *La dama de Pskov* opera sortu zituen, 1873an bere kargu militarra utzi zuen arte.

Rimski-Kórsakovek eta Bosten Taldeak beste sortzaila batzuekin ere kolaboratu zuten. Rimski-Kórsakovek, orkestrarako lan asko sortzen jarraitu zuen; tartean *Scheherezad* eta *Capricho español* obrak ere sortuz. Hamabost opera ere idatzi zituen; *Kashchéi el inmortal* eta *El cuento del zar Saltán*, esaterako. Opera honen zati ezaguna da, askotariko instrumentuekin jotzeko hainbat aldaketa jasan dituen *El vuelo del moscardón*.

Badago euskal itsas-gizonen artean kondaira bat. Diotenez, bere marinel garaian bertara egindako bidaietan jasotako Lekeitio herri-doinuetan hartu zuela *Scheherezad*eko doinuak sortzeko inspirazioa.

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Yoko Out taldearen atmosferan



Taldearen garai bat borobiltzeko kaleratutako diskoa da **Yoko Outen 'Poeta hiltzaileen hamarkada'**. Musikagaz disfrutatzeke helburuagaz elkartzeko dira zortzi taldekideok Mallabierna industriaguneko lokalean, eta bertan egon gara eurekin. Kontzertu gutxi eta bereziak emateko asmoa dutela diote; ekainaren 26an, Durangoko Tabirako jaietan joko dute

Noiz eta zelan sortutakoa da Yoko Out taldea?

Hasiera batean, beste talde batzuetan genbiltzan lagun batzuk hasi ginen elkartzeko. Lokal hau hartu genuen, eta gitarra akustikoekin eta hasi ginen probatzen. Hiru-lau lagun artean ekin genion doinu eta letrak sortzeari.

“Lagun artean hasi ginen, gure beste taldeetatik aparte, Yoko Out batzen”

Eta zelan joan zen taldea hantzen? Zortzi zaretze orain...

Lagun artean hasi ginen elkartzeko, eta abestiak sortzen bagenbiltzala ikusita joan ginen taldekide berriak behar genituela ohartzeko: batera, baxua eta abar behar genituela... Horrela hasi ginen lagun musikariei parte hartu zezaten proposatzen.

Zenbat denbora da hemen elkartzeko hasi zinetela, beraz?

Urte bi inguru da elkartzeko hasi ginela; taldean sartzen azkena izan den Alain batera-jotzailea etorri zenetik urte eta erdi da, gutxi gorabehera. Ordutik gabil-tza zortziok: zazpi musikari eta

musika instrumenturik jotzen ez duen arren, Jon Paul, zortzigarren taldekidea: bideo-sorkuntza, argazkiak eta abar egiten ditu.

Zuzenekoetan ere, musikaz gainera, irudia lantzen duzue?

Elorriko Ateneoan jo genuenean bai; proiektioagaz uztartu genuen musika. Jon Paulek gure musikarako pentsatutako pelikula zaharren zatiak eta argazkiak joan ginen musikagaz zuzenean nahasten.

Eta entseguetan ere parte hartzen du taldeko bideo-sortzaileak?

Guztietara ezin izaten du etorri, baina ahal duen guztietan etortzen da. Taldeko partaide bat gehiago da bera: multimedia sortzailea.

Diskoa grabatzeko aukera zelan sortutakoa da?

Azken taldekidea, Alain, sartu eta gero grabatzea merezi zuten abestiak bagenituela konturatu ginen: Karlos Gomez teknikariari komentatu genion, eta asteburu batean egin genuen grabaketa.

“Gure musikarendako pentsatutako irudiak prestatzen ditu Jon Paulek”

“Durangaldean asko entzuten ez diren instrumentuak ditugu taldean”

Inguruko taldeetan oso ohikoak ez diren instrumentuak entzuten dira Yoko Outen.

Egia da, bai. Durangaldean asko entzuten ez diren instrumentuak ditugu taldean: pianoa, melodikoa eta aho-soinua, esate baterako. Alde horretatik bakarrik, filosofiari dagokionez ere bestelakoa da talde hau.

Zer berezitasun dauka taldearen filosofiak?

Beste taldeetan baino trankilago hartzen dugu: beste taldeekin alderatuta “ihesbide” moduko bat da. Sortzeko askatasun osoa daukagu taldekide guztiok. Alainek Alertagaz egiten duen metalagaz alderatuta, esaterako, oso desberdina da Yoko Out, eta berdin taldekideon beste taldeekin: Doctors Club, Little John, Sermond's... Desberdin bizi dugu talde bakoitza. Baina hemen denok daukagu lasaitasun sententzia.

Giro berezia izaten duzue astelehenetako entseguetan ere?

Gehienon astelehenetako txipa aldatzeko modu bat da iluntzetan hemen elkartzeko. Askotan, gainera, jotzen hasi orduko berbetan egoten gara ordu bete: batek ikusi duen pelikula, bestearen ez dakit zer kontu...

Zinemagazko duzuen zaletasunaren adibide dira kanta batzuetan sartu dituzuen pelikuletako audio kortreak.

Nahiko *freak* edo melomanoak gara horretan. Elorriko Ateneoan jo genuenean, esaterako, 24 Ordu Digitalean jaialdiaren sari banaketa zen, eta gu ere saiatu ginen film labur bat egiten: ez genuen epearen barruan amaitu. Jon Paul sartu zenetik, argiagoa da musika eta irudia elkartzeko helburu hori.

“Kontzertu gutxi baina bereziak eskaintzea da gure helburua”

Zelan egiten duzue musika eta irudiak uztartzeko lan hori?

Abestiak entzun, eta berari buruzatzen zaion pelikulagaz etortzen da Jon Paul lokalera: “Zati honetarako perfektua den pelikula topatu dut: kolore bat dauka...”. Hasten da imajinatzen, gero jotzen dugun bitartean entsegu-lokalean joaten da irudiak proiektatzen. Izan daiteke polonierazko pelikula bat, 60ko hamarkadako film bat... Berak lotzen du irudia gure musikagaz.

Zelan hartu izan du publikoak zuzeneko berezi hori?

Jendeak harriduraz hartu zuen, ez zutelako inondik ere itxaroten, baina jendeari gustatu egin zitzaion. Lan handia du, dena dela, halako emanaldi batek: kontzertu asko egin barik, gutxi eta oso bereziki prestatuak gura ditugu egin. Urtean pare bat kontzertu emanda pozik geundeko.

Zelan sortzen dituzue kantak?

Beste talde batzuetan oso kontrolatuta egoten den prozesua guztiz naturala da hemen, baina, hala ere, ateratzen joan dira gauzak, eta aurrera goaz. Ez dugu sortzeko metodo zehatzik. ■ I.E.

Nerabegarotik oholzarik oholza ibili osteko eskarmentu eta patxadagaz

Hamalau-hamabost urteagaz lehenengoz eszenatoki batera igo zirenetik, “geratu barik” ibili dira Yoko Out taldean batzen diren musikariek: eskarmentua badute. “Hasieran kontzertuak dira ametsa”, dio Ehiar baxu-jotzaileak; “Eta musikatik bizitzeko aukera ere baduzu buruan”, gehitzen dio Gorka gitarra-jotzaileak. “Musikatik dirua irabazi ez, galdu egingo dugula badakigu orain”, diote, “ahalik eta gutxien gastatzen eta, batez ere, musikagaz disfrutatzen ahalegintzen gara”, azpimarratu dute.

Taldekideetako beste bi, sekula talde batean jo bakoak dira: bere kabuz ikasi du aho-soinua-

gaz bluesa jotzen Josebak, eta abeslariarentzat ere lehenengo taldea da Yoko Out.

Diskoan bildutako letrak “apur bat ilunak eta oso kritikoak” izan arren (*Tsunami* kanta da joera kritiko horren adibide), lokalean beti lagun artean eta umore onean egoten direla kontatu digute. “Jolas” moduan ipini zioten taldeari izena ere: “Beatlesak hil zituelako, *Yoko Ono kankora*” esaten dute ingelesez, eta bi berben euskarazko zentzuagaz ere jokatzeko dute.

Ekainaren 26an Durangoko Tabira auzoko jaietan joko dute, eta udatik bueltan diskoaren aurkezpen-jai bat egiteko asmoa dute.

MUSIKA > NAZIOARTEKO EGUNA

Musikaren Europako Eguna ekainaren 21ean

Durangaldean ere oroitaraziko digute Musikaren Europako Eguna dela datorren astelehenean

Andra Mariko elizpea da Musikaren Europako Eguna ospatzeko hautatu duten lekua: astelehenean 17:30ean egin dute Durangon hitzordua. Asteleheneko musika emanaldiekin emango dute Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasurtea amaitutzat, eta erdi mailako ikasketak amaitu dituzten hiru ikasleri agiriak banatuko dizkiete, astelehenean bertan: Nerea Aizpurua txelotzailak, Igone Amesti abeslariak eta Ana Castilla binbolintzailak jasoko dituzte agiriak.

Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasle gazteenak, musika bandak lagunduta, entzungai izango ditugu ekainaren 21ean; umeen eta gazteen banda ere bai.

Ikasleen kalejira Iurretan
Kalez Kale antzerki jaialdiagaz lotu dute Musikaren Europako Eguna, bestalde, Iurretan aurten: Maiztegi Herri Eskolako ikasleek kalejira egingo dute Sugarri fanfarriak lagunduta, ekainaren 21ean 15:00etan. Musikaren Europako Eguna biribiltzeko, Cotton Club Dixie Jazz Band taldearen kalejira antolatu dute, Iurretan zehar, 19:00etan. ■ I.E.

Andra Mariko elizpean eskainiko dituzte emanaldiak Durangon

MUSIKA > EMANALDIA

'Mirentxu' opera taularatuko du Gorrotxategi abadiñarrak Arriagan

Ekainaren 19an, 22an, 24an eta 26an taularatuko dute Guridiren opera

Andeka Gorrotxategi tenorea antzezleen arteko bat duen Jesus Guridiren *Mirentxu* operaren lau emanaldi egingo dira datozen egunetan Bilboko Arriaga antzokian. Gorrotxategigaz batera, María Bayo, Marifé Nogales eta Christopher Roberstonek ere jardungo dute, euren paperak kantuan antzetzten. Bilboko antzokiaren kudeatzailea ere baden Emilio Sagiren zuzendaritza eszenikogaz prestatu dute emanaldia.

Duela urte bitik prestatzen jardun du Andeka Gorrotxategi abeslari abadiñarrak *Mirentxu* obrako bere papera, eta beragaz elkarriketa egin genuenean esan zigunez, "María Bayogaz kantatzea oso gauza berezia izango da". Egin dituenetik opera-lanik "garran-



María Bayo, Christopher Roberstone eta Marifé Nogales egaz oholtzan

tzitsuena" ei da berarentzat, tenore abadiñarrak azpimarratu duenez. Ekainaren 19, 22, 24 eta 26ko emanaldietan Euskadiko Orkestragaz jardungo du, gainera. ■ I.E.

DANTZA > EMANALDIA

Antzinako erako eztegua antzeztuko dute domekan

Ekainaren 20an, Durangon egingo du Antzinako Erako Eztegua Kriskitinek



Antzinako bizimoduaren eta gure kulturaren erakusle den ohitura bat ezagutu eta gordetzeko aukera legez aurkeztu du Kriskitin dantza taldeak domekan Durangon antzeztuko duten Antzinako Erako Eztegua. Horrez gainera, baina, egun-pasa ederrera aukera ere bada proposatzen dutena.

Durango Euskal Astearren egitarauaren barruan hartutako azkeneko ekitaldia da ekainaren 20ko Kriskitinena: Kalejira egingo dute 12:00etan, Madalena eta Ezkurditik Santa Ana plazaraino. Ezkontza-kontratua irakurriko dute 13:30ean, dantza emanaldia egingo dute ondoren, eta bazkaria eta erromeria Tabiran.

Maiatzean, Merkatu plaza osteko euren txokoan egin zuten Kriskitin taldekoek domeka honetako Antzinako Ezteguan parte

hartuko dutenei informazioa eskaintzeko deialdia: aurreko urteetako bideoak ikusi, eta domeka honetarako jantziei buruzko informazioa ere eskaini zieten parte-hartzaileei.

Laugarren aldia da Antzinako erako eztegua antolatzen duena Kriskitin dantza taldeak, eta bost urterik behin zabaltzen diete herritarrei parte hartzeko gonbitea: taldeko dantzari eta musikariek ez ezik, gura duten herritar guztiek ipintzen dute antzinako ezteguaren errepresentazioan euren aletxoak. ■ I.E.

Durango zehar kalejira egingo dute, 12:00etan hasita

Maiatzean egin zuten parte hartuko duten herritarrekin batzarra

BERTSOLARITZA >

Durangaldetik Bizkaiko Txapelketarako sailkatutakoak

Maiatzean Berrizko frontoian Durangaldeko Bertsolarien Txapela jaso zuen eta ondorioz Bizkaiko Txapelketarako txartela lortu zuen Miren Amuriza berriztarrak gainera, finalean kantatu zuten Durangaldeko beste bost bertsolariek ere lortu dute sailkatzea. Epaimahaiarengandik jasotako puntuen arabera lortu dute Gorka Lazkano, Eneko Abasolo "Abarkas", Beñat Ugartetxea, Eñaut Uruburu eta Julen Soluluzek sailkatzea. Udazkenean jokatu den Bizkaiko Txapelketara, eskualdekoetan puntu gehien batuta doaz, gainera, Lazkano berriztarrak eta Abasolo iurretarrak (262 eta 252 puntuak).

Bizkaiko Txapelketarako sailkatzea lortu duten 30 bertsolarietatik aipatutako seirak izango ditugu, beraz, Durangaldea ordezkatzeko: Amuriza, Lazkano, Abasolo, Ugartetxea, Uruburu eta Soluluze. ■ I.E.

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia

EKAINAK 18
22:00etan

GAUELEKTRONIKOA
X. EDIZIOA

OREIN BI LIVE! • IKER UNDERSOUND • RUBEN COSTAS
JAVIERSKY • JURGI DIAZ

Sarrera: 6 euro (+ Flyer 4 euro)

Eguneko menua astelehenean larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300



ekainaren 27tik
uztailaren 30era

UDA KALEAN BIZI

San Agustin kultur
gunearen eskutik

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

11.94 601 07 76

HITZ

Liburudenda

Zuntza eta Mugikorra, azkenean elkarrekin



Euskaltelen Pribilegio Plana



Zuntza badaukazu eta Mugikorra kontratatzen baduzu, **hilean 6 €-ko deskontua** izango duzu Zuntzaren fakturan. Betiko.



Zator Euskaltelen saltokira

6 €-ko deskontua Zuntz Optikoren linearen hileko kuota. (BEZA berriz). Zuntz Optikoa 2 M-ko edo hortik gorako Banda Zabalarekin daukaten bezeroentzat, baldin eta etxeko ondoren ordaintzeko mugikorra Unika 15 Tarifarekin edo hortik gorako batekin kontratatzen badute. Sustapenak 2010eko uztailaren 31 arte balio du.



Juanra de la Cruz

Kurutziagako Kurutzea: historia, artea eta erlijioa

Joan zen astean inauguratu zuten Kurutzesantu museoa. Asteburuetan bisitatu ahal izango da Kurutziagako Kurutzea protagonista duen erakusketa; Kurutze Santuaren Kofradiaren, ermitaren eta heretikoaren berri ere ematen du. Monumentuaren informazioa eskuragarri dago, baina oraindik zenbait gauza argitzeko dago.

Durangon ospea eta garrantzia eduki arren, misterioz beteriko monumentua da Kurutziagako Kurutzea. Bere gaineko teoria eta iritziak badaude, baina ez dago sorrerako dataren, autorearen eta arrazoien inguruko datu ofizialik.

Aditu eta ikerlari gehienek ustez, XVI. mendean hasieran kokatzen da kurutzearen erakuntza. Antzaenez, Europa iparraldeko artista batek landu zuen obra. Bizkaiak hartueman komertziala ei zeukan Herbehereekin, eta, beraz,

korrante artistikoei ere izango zuten eragina. Teoria horrek, baina, ez du autorearen izena ematen, ezta enkargua egin zuenarena ere.

Nahiko argi dagoen kontua eskulturaren mezua da. Iritzi gehienek bat egiten dute pekatutik itxaropenerako eta barkamenerako istorioa kontatzen duela, erlijioagaz lotutakoa. Sinbolismoz beteriko lana da.

Hala ere, nork agindu zuen kurutzea egitea eta zertarako? Hiru funtzio egotzi izan dizkionte adituek: uriko azaleraren amaiera markatzea, askatzailea

gurtzea eta pekatuaren bat ordaintzea. Azken argudio hau, konkretuki, XV. mendean Durangon izandako heresia eta ondorengo zigor prozesuan oinarritzen dute. Fray Alfonso de Mella eta beste fraide batzuek Izpiritu Santuaren Aro Berria iragarri zuten, legeak beharrezko ez zirela eta elizak eraldatu behar zuela esanez. Askatasun espiritualaren alde egin zuten, eta jarraitzaile asko izan zituzten. Inkisizioak 100 lagun inguru hil zituen, sorginkeria egotzita.

Historian zehar, kurutzea beti egon izan da Kurutziaga ingurunean, Gerra Zibilean zehar izan ezik. Bonbardaketan fustea apurtu zioten, eta elementu garrantzitsuak batzen zituen Bilboko portuko biltegi batera eraman zuten 1938an. Eraso horretaz gainera, 1981ean ere Batallón Vasco-Español talde armatuak lehergailua ipini zuten kurutzean, konpondu ezinako kalteak eraginez. ■ M.O.

Teoria batek XV. mendeko Durangoko heresiagaz lotzen du kurutzea

1981ean Batallón Vasco-Español talde armatuak lehergailua ipini zuten kurutzean

Zer kontatzen du Kurutziagako Gurutzeak? Zein da bere mezua? Gurutzeak kaleetan edota plazetan ipintzen ziren, eta Kurutziagakoa lehengo Bakardadearen ermita aurrean zegoen; gaur egun museoa dena eta Kurutze-santu deitzen zaiona. Kurutze Santuaren programa, librantzarena da. Hiru puntu ditu zehazki: zutabearen fusteak itun zaharra jasotzen du; Adanen irudiagaz gizakia pekatuan erori dela islatzen du. Kapitela edo zutabeburuak Kristo jaio zenean sinismena zabaldu zutenak iragartzen ditu: apostoluak; Itun berria da, Kristoren jaiotzatik apokalipsira. Atzean, Maria agertzen da, askatzailea. X-XII. mendeetatik Maria askatzaile legez ikusten da; gizakiarentzat heriotza dena. Aurrean, gurutziltzaketagaz, gizakiak eternitateagaz gozatu dezake. Betikotasun hori oinean irudikatzen da: oktogonoa da, berpizkundera adieraziz.

Artistikoki, zer esango zenuke? Ikonografikoki, oso ederra da gurutzea. Esaterako, Kristoren odola batzen ikusten dira aingeruak, XIV. mendeko ikonografian. Maria gurutzearen azpian ageri da, Stabat Mater-a jarraituz, sufri-

“Nire ustez, XVI. mendeko Europako gurutze onenetakoa da”

tzen. Mariaren alboan Santa Katalina eta Santa Barbara daude, heriotza onaren patroiak direnak. Hain zuzen, Kurutze Santuaren kofradiak heriotza onerako prestaketa predikatzen zuen.

Eguzkia eta ilargia ere agertzen dira. Mito paganoak direla esan izan dute...

Ebanjelioak dio eklipseagaz guztia ilundu zela. Baina Durangon aldatu egiten da hori: eguzkia eta ilargia osorik baitaude. Kristo eta Mariaren errepikapena da. Kristo justiziaren eguzkia da, eta ilargia gizakia eta astroen arteko bitartekaria da, Maria legez. Frantziskanoak oso kultuak ziren, eta baliteke XV. mendean garatu zen humanismoaren filosofia bertan jasotzea.

Europa mailan garrantzia duela aipatu izan da.

Nire ustez, XVI. mendeko Europako gurutze onenetakoa da. Artistak soltura handiz landu zituen XII., XIII. eta XV. mendeetako ikonoak. Horregatik diot XVI. mende hasieran eraiki zutela.

“Kurutzeak ez du zerikusirik heresiagaz, Kurutze Santua da”



Juanra de la Cruz

Museoaren inaugurazio ekitaldian *Kurutziagako Gurutzearen Ikonografia* liburua aurkeztu zuen Jesus María González de Zarate irakasleak. Arte eta Historian aditua, Durangoko gurutze honen alde artistikoa nabarmentzen du. Kurutzearen sorrerari buruz bere iritzia dauka, eta inpresio orokorrak azaldu dizkigu.

Heresia eta sorginkeriagaz lotu izan da.

Hori ez da egia. Horren froga da bertako ikonografia une historiko berean Durangotik 1.000 kilometrorra agertzea: Elxen, hain zuzen ere. Huerto de la Cruz-eko museoan dago. Maria, Barbara, Katalina, aingeruak, Kristo... daude han ere. Ez du zerikusirik heresiagaz; Kurutze Santua da, ermitaren aurrean egoiteak dioen moduan. Kontatzen duena dogma da, eta edozein heresia horren kontra dago.

Zer paper hartzen du Juan Zumarragak kontu honetan?

1527an, fraile durangarra Valladolideko monastegiko zaindaria zela, Carlos V. erregeak Anboto ingurura bidali zuen inkisidore, eta 1928an Mexikora joan zen, bertako

“Kurutzea sortzea Juan Zumarraga fraide durangarrak agindu zuela uste dut, 1527an”

gotzain izendatu baitzuen. Kurutze Santuaren eta kofradiaren defendatzaile oso sutsua zen frantziskotar hau: Mexikora ailegatzean Kurutze Santuaren ermita bereganatu zuen eta dominikoak bota zituen. Horregatik, gurutzea sortzea berak agindu zuela uste dut, 1527an.

Denbora eta erasoek eragina izan dute Kurutze Santuan.

Portugaleteko hilerrian bere kopia bat dago, 1928koa. Bertan identifikatu ahal izan ditut, esaterako, apostolu guztiak. Lagungarri izan da. Artxiobotan ere ikertu dut; Sevillakoan, adibidez.

Zer elementu aipatuko zenuke?

Alde batetik puntu matxista bat. Izan ere, Eva pekatariak sagarra jan zuen, baina Adan gizonak bazekien kosk egi-

tean zertan zebilen. Ez zuen jan, eta hori modu politean islatzen da; sagarra haginka eginda ikusi daiteke. Bestetik, Santa Barbararen hirutasunaren alegoria: mundu osoan hiru leihoko dorreagaz agertzen da, eta Durangon dorrea lisua da; ondo begirata, leihoak eskuan dituela ikusten da. Ikonografia hau ez dut inoiz ikusi. XII-XIII. mendeetako artean baino ez da agertzen, oso gutxi, gainera.

Nondik dator liburuaren ideia?

Iñaki Bazanek komentatu zidan Durangon eskaini nuen hitzaldi baten ondoren. Hasieran artikulua bat egitea zen asmoa, baina liburuak merezi zuela ondorioztatu genuen. Pena izango litzateke durangarrek pieza garrantzitsu hau ez ezagutzea.

IRITZIA

Errespetuz, bakoitzari berea

Azkenean ere, Aralarrek bere benetako aurpegia erakutsi digu: "zorionak". Urteak daramatzagu proiektu politikorik ez daukazuela esanez, apartheid politikoa-ren babesle zintzo zaretela eta marketing politiko hutsetik bizi zaretela salatu. Eta azkenean, urduritasuna, ezinegon edo inbidia tarteko, ardiak otso aurpegia erakutsi digu. Baina lasai, sakondu dezagun esandakoetan...

Lehenengo eta behin, argi hitz egin behar dugu: apartheid politikoa eraginez "talde mistoa" osatzera pasa ziren gure lau zinegotziak; baina, herri-tarrek Ezker Abertzaleari eman zizkieten bozkak eta, ondorioz, zinegotzi hauek Ezker Abertzalekoak dira eta izango dira. Gutuna idazterakoan erabili duzuen ironia zikin horren helburu bakarra herri honek bizi duen errepresio egoeran hatza sartu eta min gehiago eragitea besterik ez da izan. Eta zuek horri deitzen al diozue "errespetua"? Bada, urteak dira horren gutun laburrean horrenbesteko errespetu faltarik batera ikusi ez dugula. Espainol auzietatik apartheida inposatu eta zuek txalotu egiten duzue! Eta etekina atera nahian ari zarete behin eta berriro. Eta burura dator kigu, zergatik? Ez zaretelako gai proiektu politiko propio bat garatu eta aurrera eramateko. Ogi apurren truke eta karguren bat lortzearen edonorekin akordioak sinatzeko prest zaudete; "publiko zein pribatuak" noski. Erosogi bizi zarete inposatutako marko honetan edonolako aldaketarik nahi izateko. Eta guri esaten diguzue ez daukagula auto-kritikarako gaitasunik? Ezker Abertzaleak proiektu politiko propio, zehatza eta publikoa dauka; urte urte moldatuz, eguneratuz eta osatuz joan dena. Eta hori guztia, noski, herri-tarrek batera eta ongi egindakoak indartuz eta gaizki egindakoetatik ikasiz egiten da. Hain zuzen, Ezker Abertzaleak duen oinarri sozialak eta egoera kaxkarrenetan lanean jarraitzeko duen indarrak ematen dizue mina. Zuei, Euskara Planak bost!

Zikin idatzi duzue gutuna, eskua joan zaizue, berotu egin zarete, baina berdin zaigu; guk lehenagotik ere ongi baikenekien zuen benetako izaera zein den. Gure bideak aspaldi banatu ziren eta gu zuzen-zuzen Euskal Estatura goaz, zuek noraezean darraizuen bitartean. Argitu zuen ideiak, proiektua eta helburuak; eta utzi alde batera gu publikoki iraindu eta barnetik "pelota egiteko" praktika. Inolako baldintzarik gabe, gurekin edozein akordio lortzeko jarrera izan duzue sarritan, eta publikoki "utopikoegiak" garela aurpegiatu. Entzun pertsona handi eta gertuko batek irakatsi ziguna: "Zuok utopikoak ekarriko duzue herri honen askatasuna", Telesforo Monzon.

Liher Gonzalez eta Xabier Rojo, Durangoko Ezker Abertzalearen izenean

Guk Durango euskalduna!

Aralarren jarrerari erantzunez, hainbat urtetan Ezker Abertzaleko zinegotzi izandakook ondorengo hau argi eta garbi azaldu nahi dugu:

Hasteko, 2007. urtean Durangoko udal gobernuak Euskara Planaren abiapuntua (planean jorratu beharreko arlo desberdinen helburuak) aurkeztu zuen plenoan, eta guk, plan honen beharra eta premia ikusten genuenez, behin-behineko plan honi konfiantzak botoa eman genion. 2008. urteko abenduan, hurrengo lau urteetan garatu beharreko Euskara Planaren azken bertsioa aurkeztu zuten. Bertan plana martxan jartzeko, ezinbestean, teknikari baten beharra azpimarratzen zen. Izan ere, momentu hartan Euskara Plana aurrera ateratzeko behar zen baliabide pertsonal ez zegoen plana landu zutenen aburuz, eta azken urteotan lanean egondako Ezker Abertzaleko zinegotziok ere hala adierazita geneukan, behin eta berri. Hortaz, Euskara Planari azkeneko onarpena emateari uko egin eta abstenitzea erabaki genuen.

Honen harira, Langileen Eskaintza Publikoaren eztabaidan, behin eta berriro euskararen normalkuntzarako teknikari (planaren barruan sartuta dauden langileak trebatu eta planaren jarraipena egingo luke) baten beharra aipatu genuen Euskara Plana aurrera ateratzeko. Gure proposamena alde batera utzi eta itzultzaile batena onartu zen. Besteak beste, Aralarrek babestu zuen gobernu taldeko proposamen hau. Eta hori da gaur Durangoko herritarrei argi azaldu nahi dieguna: ez dugula inondik inora hankamotz dagoen planik onartuko. Gure ardura politikoa zein den ondo dakigu, eta plana ez onartu arren, jarraipena egin dugun talde politiko bakarra izan gara. Horren adibide gisa, 2009. urte osoa Euskara Planaren jarraipen batzorderik bildu gabe pasatu ondoren, aurtengoa guk eskatuta egin dela, planaren gabeziak eta aurrerapen eza agerian utzita. Guk ez dugu ezer asmatu; Euskara teknikariaren gabezia gainera, Euskara Planaren garapen falta agerian gelditu da planaren jarraipenaren ondoren.

Guretzako arrazoi pisutsua da hau gure jarreraren azalpena argitzeko. Plan hau onartu dutenak, aldiz (PNV, PSOE, ARALAR eta EB), onarpenaren ondoren-

go argazkietan agertzearekin konformatzen dira, eta guk beraien arduragabereria politikoa salatzen jarraituko dugu. Aralarrek berak hitz hauetan mugatu du Euskara Planarekin izan duen jarrera: "Ez da guk amesten dugun plana, ez da gure hizkuntza eskubideak % 100ean bermatuko dituen plana... baina gure eskubideen alde pausu txikia izanda ere, zerbait da...". Era horretan justifikatzen duzue zuen aldeko bozka, hori baita daukazuen argudio bakarra.

Halaber, 2000. urtean Euskal Herritarrok euskara batzordearen lehendakaria izan genuela aipatu duzue (zuen ordezkariak ziren ala ez argitu gabe). Baina bost hiletan bakarrik egon ginela esatea "ahaztu" zaizue. Honen arrazoiak apartheid politikoa lehengo urratsak eman zirela da, eta hau ere zuentzako gordetzea erabaki duzue. Denboralabur horretan egindakoen artean Euskara Planaren bideragarritasun plana onartzea agertu zen. Baina gauza bat da bideragarritasun plana eta bestea Euskara Plana bera; 7 urte geroago aurkeztu dutena, aipatutako hutsuneekin. Haatik, Ezker Abertzaleak euskararen inguruko jokabideak koherentziaz hartutako erabakiek osatu dutela berretsi nahi dugu. Beraz, gauzak testuingurutik ateratzeak ez dizue aurpegia zurituko, eta guk ez dugu horrelako jarrerarik onartzen. Denen den, Euskal Herritarrok denbora parte labur horretan egindako lanari buruz zalantzak baldin badituzue, eragile sozial, elkarte eta udaleko teknikariengana jotzeko aukera duzue; Ezker Abertzaleak ez du zuen aurrean justifikatzeko beharrik. Baina honen harira, zalantza bat ere sortzen zaigu: non egon ote zineten zuek garai horretan egindako lanari buruz horrelako ezjakintasuna agerian uzteko? Ezker Abertzalean ez, behintzat. Amaitzeko, guk Durango euskaldundu nahi dugu, eta horretan ari gara, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatu eta bermatzeko. Hala ere, guri dagokigun lekutik Euskara Planaren jarraipen zorrotxa egingo dugu, daukagun erantzukizun politikoa eragatik. Zuen nora ezak eta proiektu falta zuen etxean argitu, Ezker Abertzaleak zuengan eragiten duen erreferentzialtasuna konplexu bihurtu baduzue, gero ez justifikatu gure lanaren fruituetan zuon gabeziak.

Tarte hau aprobetxatu nahi dugu, bestalde, Udaltzako epaiketan auziperatutako 22 kideei gure elkartzasuna adierazi eta helarazteko.

Durangoko Ezker Abertzaleko zinegotziak eta zinegotzi ohiak: Oier Perez, Zorione Arana, Ritxar Alberdi, Oihana Estibez, Begoñe Markina, Ibon Petralanda, Jabi Arceo, Aritz Alberdi eta Aitor Sarrionaindiak sinatuta

Iurretako Kultur Sailari gutun irekia

23 urtetik hona Iurretako elkarte batek Emakumeen Bira txirrindularien lasterketa antolatzen du. Hasierako izenari gure herriarena erantsi zitzaion aurreko udal legegaldian. Gure herrian kirol jarduera Kultura Sailaren barruan dago eta handik kudeatzen da, EAEko antolaketa ere horrela baita.

Kontua da Iurretan jarduera bat antolatu den egun eta ordu berean beste kultur ekintza bat antolatu dela, eta guk horri guztiz desegokia irizten diogu. Horrek erakusten du begirune eta sentsibilitate gutxi diogula gure udala babesle nagusienetako den ekimen bat aurrera ateratzen diharduen herriko klub bati. Bestalde, uste dugu ez direla egokiak egiten diren kritikak kaleak 13:00etan ixteagatik eta Iurretako erdialdeko aparkalekuak 24 ordutan kentzeagatik. Ez gara isiltzekoak, eta badakigu Emakumeen Bira izan beharrean Euskal Herriko gizonen itzuliko etapa bat antolatuko balitz, Maspe kalea moztu egingo litzakeela goizeko 8:00etan, eta kale horretako eta Paduretako aparkalekuko ibilgailuak kendu egingo lirakeela, berdin astegun zein jaiegun. Baina hau txirrindulari emakumeen lasterketa da, eta gure lagun Patxi eta Agusek antolatzen dute eta, beraz, gaia ezin daiteke hain garrantzitsua izan.

Herri honetako batzuk ez dira oraindik konturatu antolatzen dugun lasterketa honek duen tamainaz. Datorren urtean, antzekoen gainean jardungo dugu eztabaidan. Gaur egungo 'Iurretako Emakumeen Bira' emakume txirrindularien Euskal Herriko itzulia da, gustatu ala ez; inor ez den batek, bik edo lauk antolatzen badute ere. Gauzak horrela, espazioa behar da, ondo mugatuta, 130 txirrindularik beroketak egiteko ordubetean eta segurtasunez. Ibilgailuak ere nonbait aparkatu behar dira, beraz, honako aurreikuspena egin dugu: taldeetako 21-25 ibilgailu (autoak, furgonetak, kamioak...); 10 auto ofizial; ambulanzia bi, erratz-autoa eta gainontzekoak, Ertzaintzaren auto eta motoak, laguntzarako motoak eta prentsako autoak, besteak beste.

Honen guztiaren berri ematera behartuta gaude, ze urtero topatzen ditugu oztopo berdintsuak muntatze handi hau egiten dugun bakoitzean. Antolatzaileak garen aldetik, esan behar dugu eskakizunak egiten ditugunean ez direla txorakeriak; edo beste barik hori bururatu zaigulako, ez. Beraz, Iurretako Udala lasterketako babesle den bitartean, guk bide beretik segituko dugu. Hurrengo 'Iurretako Emakumeen XXIV. Bira' 2011ko ekainaren 9, 10, 11 eta 12an egingo da; diru-laguntza nahikorik badu, jakina. Hartara, dagokionari iradokizuna bidaltzen diogu gogoan hartu dezan. Eskerrik asko.

Iurretako Emakumeen Bira ziklismo K.E.

Sei hankako mahaia



Niko Moreno
Ezker Abertzalea

Arrazoiak badaude

Ekainaren 29an greba orokorra deitu dute bertako sindikatuek, Estatu espainoleko lan-erreformak dela eta.

Aipatu erreforma deitua du estatuak krisi ekonomikoa dela eta.

Krisiaren hastapenetan banketxeen eta gainontzeko botere ekonomikoaren gaitasuna murrizteko asmoz, kapitalismoaren berformulazioa bazetorrela zirudien, izan ere, munduko ekonomiaren gorabeherak eurei bizkarreratzen zitzaizkien.

Egoera horretan estatuek "behartuta" ikusi zituzten euren buruak "sistemari" diru freskoa sartzeko, sistema berberaren iraunkortasuna ziurtatzeko eta, bitartean, mirariaren zain izan gaituzte, ekonomiaren berrakibazioa kontsumoaren bitartez helduko zelakoa, eta, aldrebes: kontsumoarena ekonomiaren sursperzearekin.

Gurpil honetan egon gara murgilduta, langabetuen kopurua etengabeko gorakadan dagoen bitartean. Sistemari diru sartzearrekin batera, jendarteari heldurra neurri berean sartu zaio. Kontsumorik gabe ekonomia egiterik ez, eta are gutxiago lana sortu... Hondamendia!!

Baina konponbide erraza eta arteza topatu dute: lorpen sozialak murriztuz (ongizate estatua), estatuek duten "likidezia falta" edo "defizit publikoa" izeneko murriztu eta honen egoera onik izango da. Hau da, banketxeak diru publikoarekin salbatu dituztenek, orain langileen eta oro har gizartearen bizkar pasatu gura dute ordainsaria.

Bitartean, bizirik diren bankuek zenbaki eskandalagarri onak erakusten dizkigute...

Iraultza soziala egiteko arrazoiak badaude ere, 29an greba egingo dugu, ez da gutxi. Arrazoi sozial eta nazionalak daude.

Banketxeak diru publikoarekin salbatuta, langile eta gizarteari pasatu nahi diote ordainsaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
 diruz lagundutakoa


anboto
 durangaldeko astekaria
 Anboto komunikabideak Elkarte
 2010eko ekainaren 18a - 9. urtea - 378 zk.

Laguntzailea:	Honako herrietako udalak:
	Abadiño Elorrio Mallabia
	Atxondo Garai Mañaria
	Berriz Iurretako Otxandio
	Durango Izurtza Zaldibar

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazioa: Itziar Belar, Miren Abasolo eta Naiara Alzaga.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itxaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugaldel eta Gemma Aldalur.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Ana Domínguez, Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

ART LEKU

www.artleku.com

zeharkalea 9, Durango

Marrazketa, Akuarela, Oleoa
Arte Ederretarako prestaketa,
Kaligrafia Orientalak

uztaila:

Pintura eta eskulanak ingelesarekin

- 7 urtetik 12ra arte
- Ordu-tegiak:
1. taldea: 09:00-10:20 / 2. taldea: 10:30-12:00

ERRAZA: erabilerara samurra, intuitiboa, ez da ingeles maila alturik behar

DIBERTIGARRIA: margozen gozatu eta ingelesean trebatu

Uztailean, ohiko klaseak arratsaldez ere bai



Tel.: 608 93 97 19 • 944 66 81 41

Klase partikularrak

Irakasletzan (atzerritar hizkuntza) diplomatua:

Ingelesa, euskara, matematikak, gaztelania, ingurumena, etab. ematen dira 5-12 urte bitarteko ikasleei.

ordutegia

- Goizeko taldea: 11:00 / 13:00
- Arratsaldeko taldea: 17:00 / 19:00
- Irailean ere laguntza klaseak ematen dira:
 - 17:00etatik 20:00etara
 - Talde txikiak

lekua

Zeharkalea 9 • 48200 Durango



Tel.: 660 78 48 05

AGENDA >

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguzten eguerdi aurretik.



Ekainaren 19an, 22:30ean lurretako San Miguel plazan

TERAPIA

'Kalez kale' jaialdiaren baitan antzerki eta ikuskizun ugari ikusteko aukera izango da lurretako kaleetan. Horietako bat da 'Terapia', Markeliñek dakarkiguna. Ondoa izateko aukeratu dugun bikotekidearen inguruko hausnarketa proposatzen digu. Maitasunetik maitasun ezera pausu bat dagoela adierazten digute antzezlanen. Keinu eta pasioz betetako ikuskizuna bertatik bertara ikusteko aukera.

BESTEAK

DURANGO

> **El Show de Javier Mañón** ekainaren 24an 23:30ean, Misarben.



IURRETA

- > **Iurreta txirindulari elkarteak antolatutako ibilbidea**, ekainaren 19 eta 20an 08:00etan, lurretan.
- > **Bermeora irteera**, ekainaren 19an 09:00etan, irteera Maspetik. Anderebide elkarteak antolatuta.
- > **Mus, tute eta briska txapelketak** lurretako Nagusien Egoitzan, bazkideentzako, ekainaren 22tik 25era, 18:00etan.

ERMUA

> **Gastronomiari buruzko azoka**, ekainaren 19an, 11:00etatik, Orbe Kardenalaren plazan.



MAÑARIA

> **XVI. Durangaldeko Pertsona Nagusien Gimnasia Topaketa** ekainaren 18an Mañariko Frontoian.

DANTZA

DURANGO

- > **Dantzaldi ibiltaria**, ekainaren 19an arratsaldeko 19:00etan, Plateruena kafe antzokian.
- > **IV. Ballet Gaztea** Durangoko L'Atelier dantza eskolaren ikasturte amaierako emanaldia, ekainaren 19an arratsaldeko 18:30ean eta ekainaren 20an eguerdikoko 12:00etan eta arratsaldeko 18:30ean San Agustinen.

DEIAK

DURANGO

> **Udaleku Artistiko Musikalak**, ekainaren 23tik uztailaren 5era, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

IURRETA

> **Udaleku ibiltariak** Urbasatik Elizondora uztailaren 1etik 14ra eta **Udaleku Finkoak** Ozaetan, uztailaren 14tik 26ra. Informazio gehiago: kimuak@kimuak-elkartea.com, edo telefono hauetan: 665 72 82 13-94 620 03 42

ERAKUSKETA

DURANGO

> **Jinhee Kim** artistaren margolanen erakusketa Kukutze jatetxean abuztura arte. Abstraktua eta arkitektura uztartzen ditu 'Tu y yo' izeneko lanean.



ERMUA

> **'Margoak'** Ermuko Udako Margo Eskolako ikasleek egindako lanen erakusketa ekainaren 27ra arte Lobiano Kultur Gunean.

IURRETA

> **Iurretako Nagusien Egoitzan egin dituzten eskulenen eta maketen erakusketa**, ekainaren 21etik 29ra.

IKASTAROAK

DURANGALDEA

> **AEK-k dagoeneko zabalik du matrikula epea udan euskara ikasi nahi duen ororentzat. Euskalduntzea eta EGAKo azterketak prestatzeko 100 orduko ikastaro trinkoak. Izen ematea: ekainaren 22ra arte. Durangoko Abarrak eta Elorrioko Abizari euskaltegieta: euskalduntzeak ekainaren 28tik uztailaren 23ra. Hirugarren maila eta EGA prestatzea ekainaren 21etik uztailaren 16ra. Berrizko AEKn uztailaren 5etik uztailaren 26ra. AEK Barnetegi ibiltaria 2010 lurretan uztailaren 3tik 18ra Izen emateko azken eguna ekainaren 24ean. Beste aukera uztailaren 17tik 31ra. Izen emateko azken eguna: uztailaren 8a. Zornotzako AEK euskaltegia ekainaren 21etik uztailaren 16ra izango da.**

DURANGO

> **Kirol ikastaroak udan Landako kiroldegian;** esgrima, aerofit, spinbike, stretching, tenis padela, aquagym eta aquabike. hainbat egun eta prezio. Informazio gehiago www.durangokirolak.net edo 94 603 00 31 telefonoan.

ERMUA

> **Sabel Dantza** ekainaren 24an eta uztailaren 1ean. Parte hartu nahi dutenek Lobiano kulturgunera edo 639 414 205 telefonora deitu.

Lobiano kulturgunean 19:00etatik 21:00etara.

IKUS-ENTZUN

ATXONDO

> **Zine Foruma.** Habana blues, ekainaren 18an, 18:30ean, Udako aretoa. Atxondoko Lamiak elkarteak antolatuta.

IPUINAK

DURANGO

> **Munduko Ahotsak zikloak** nazioarteko ipuin kontalariak hurbilduko dizkigu. **Eugenia Manzanerak (Madril)** eskarmentu handia du esparru horretan. Ekainaren 18an, arratsaldeko 20:00etan, Liburutegiko 3. solairuan.

JAIK

ABADIÑO

> **Urkiolako San Antonio.** Ekainaren 19an Arratiako errogatiba. Ekainaren 20an Errepetiziñoa: mezak 09:00 -10:00-11:00-12:00-13:00 eta 18:00etan. Meza nagusia 12:00etan. Ardi txakurr erakusketa, herri-kirolak, trikitalariak...

ATXONDO

Axpen San Juan jaiak

> **Ekainaren 23an** jaien hasiera **San Juan suak** eginez ilunkeran. Tartean **su artifizialak**. Amaitutakoan **txopoa jasotzea**. Ondoren **berakatz-zopa** eta **txokolatea** denontzat. Gero **irrintzi txapelketa**. **Ekainaren 24an** San Juan eguna 11:30ean **Meza nagusia**, ondoren **igel txapelketa**, gero herriko **jubilatuentzat luntxa**. 16:00etan **Briska txapelketa** hasiera eta amaiera.

DURANGO

Euskal astea

> **Euskal Astearen baitan ekainaren 19an Berbalagun jaiak:** Kalejira trikitalariekin 12:00etan, Santa Ana Plazatik Plateruena kafe antzokiraino. 14:00etan **Berto bazkaria** Plateruenean. **Ekainaren 20an Eztegua antzinako erara;** 12:00etan **Komitibaren kalejira** azoka ostetik Madalena, Ezkurdi eta Santa Ana plazara. 13:30ean **Kontratuaren irakurketa eta dantzak**. 14:30ean **Bazkaria eta erromeria** Tabiran.

Muruetatorreko jaiak

> **Ekainaren 19an** 10:30ean **txupinazoa**. Eguerdira arte, gaztelu **puzgarriak** izango dira bertan. Arratsaldean **umeentzako jolasak**, eta gainera, iluntze aldera, umeentzako **diskoteka** antolatuko dute. **Txistorra** banaketa egingo da afari legez, eta gero **triki-poteoa** eta **erromeria** izango dira. Azken hau Lotxoren eskutik. **Ekainaren 20an**, umeak izango dira protagonista, jolas eta abarrekin. 12:30ean Herri Maite **akordeoi taldeak** bertertua eskainiko du, eta horren ondoren Txoritxu Alai taldeagaz **dantzarako** ordua helduko da. 13:00etan III. Igel txapelketa. 16:00etan **mus eta briska txapelketa**. 18:00etan **txokolatada** eta 20:00ak inguruan, **jaiari agurra** egingo zaio.

ELORRIO

San Juanak

> **San Juanak 2010.** Ekainaren 23an San Juan bezperan, 16:30ean plazatik San Juanera igoera. 17:00etan San Juan baselizan askaria eta pailazoak, eta 22:00etan kiroldegi ondoan suzko zezena, sua eta erromeria. Ekainaren 24an San Juan Eguna, 12:00etan San Juan Baselizan meza eta luntxa.



ERMUA

> **El Rozioko erromeria** ekainaren 20an, 11:00etatik, Ongaraioko Parkean.

San Juanak

> **San Juan Sua**, ekainaren 23an 22:00etan, Orbe Kardenalaren plazan.

IURRETA

Kalez kale jaialdia

> **Ekainaren 18an** Potxin eta Patxinen **'Kresalaren usaina'** Amilburu Plazan 17:30ean.



Ekainaren 19an Salitre konpainiak **'On egin mon amour'** ikuskizuna dakarte 13:00etan, Alde Zaharrean.

ekaineko agenda



Ekainak 19-20-26-27 • Txirindulari elkarteak 08:00 Ibilbide ezberdinak (76-124km)

Ekainak 19 • Anderebide 09:00 Bermeora irteera. Irteera: Maspe

Ekainak 19-20 • Lurretako IV. Kalez-kale 19an, 13:00 Salitre "On egin mon amour" kaskoan 17:30 En la Lona "Momento ridiccoli" Amilburun 22:30 Markeliñe "Terapia" Aita San Migel Plaza 20an, 12:00 Zirika Zirkus "Pantikka" Dantzarin

Ekainak 21 • Nazioarteko musika eguna 15:00 Umeen tanborrada. Jarraian, kalejira Sugari fanfariarekin 19:00 Cotton Club Dixie Jazz Band, Dantzarin

Ekainak 21-29/22-25/24 • Lurretako Nagusien Egoitza 21etik 29ra, Eskulenen eta maketen erakusketa 22tik 25era, Mus, tute eta briska txapelketak bazkideentzako 24an, 19:00 Bingo berezia

Ekainak 23 • Mikel D. K. taldearen San Juan Bezpera 20:00 Afari herrikoa. Ondoren erromeria LUHARTZ taldearekin. Sua atzedendaldian

Ekainak 28-29 • Goiuriko Ama Elkarteak

28an, 18:30 Bazkideentzako askaria 20:00 Kontzertua "Lurretako koroa" 29an, 25. urteurrena. San Pedro eguna: 13:00 Mesa, dantzariak eta txistulariak. Jarraian kalejira plazatik Nagusien egoitzara 14:30 Bazkaria. Omenaldia bazkide sortzaileei, bereziki Julia Uribe Zubia andeari

IURRETAKO UDALA

17:30ean **'Momento Ridiccoli'** En la Lonaren eskutik 17:30ean Amilburu Plazan. 22:30ean **'Terapia'** San Miguel Plazan. **Ekainaren 20an** 12:00etan **Zirka Zirkus** Dantzari plazan.

San Juanak

» **Berto desafioa** ekainaren 18an Dantzari plazan 22:00etan. Sei lagunez osaturiko talde biren arteko norgehiagoka.



Ekainaren 19an Bazkaria 14:30ean Dantzari plazako karpan. Txartelak Intxaurre eta Gau-argi tabernetan salgai. Ondoren, **sorpresa** eta **triki poteoa** lurretako tabernetan. 21:30ean Dantzari plazako karpan **Kontzertuak** The Mokers, Old Glories eta Desperdizio. **Ekainaren 23an Sua piztu** ondoren, **Akelarrea** antzerkia. Azken entsegu, 19:30ean, parte hartu nahi duen guztientzat. **Afari herrikoa** 20:00etan, ondoren erromeria **Luhartz** taldeagaz San Miguel Plazan eta **San Juan sua** atsedendian.



IZURTZA

San Juanak

» **Sua eta jan-edana** Santo Tomas parkean 21:30ean.

OTXANDIO

San Juanak

» **Suak** Basogai, Elizabarri, Errabal eta herriko plazan egingo dituzte. Kalejira txistulariekin 20:00etan herriko kaleetan.

MAÑARIA

San Juanak


» 17:30ean Umeentzako jokoak eta bokatak jateko aukera izango da.

20:30ean **San Juan sua txistulari eta dantzari**egaz.

LEHIAKETA

ERMUA

» **Postal lehiaketa**, oporretako postala bidali Euskal Birusa elkartera (247 postakutxa 48.260 Ermua) irailaren 14a baino lehenago eta saria lortzeko aukera izango duzu.



IURRETA

» **Aita San Migel jaietako kartel lehiaketan parte hartu** eta lanak aurkezteko azken eguna: ekainaren 18a izango da, Kultur Etxean.

MUSIKA

BERRIZ

» **Iñaki Plaza & Jon Garmendia** ekainaren 18an udaletxeko lorategian, 22:00etan, '20 hatz proiekt' diskoa aurkeztuz. Tradizio-ko musika tresnak plastiko zein pvc-zko hodian soinuekin uztartzen dituzte.

» **Mallabiko Jasokunde abesbatza-kontzertua** Kultur Etxean ekainaren 19an, 20:00etan.



DURANGO

» **X. Gau elektronikoa** ekainaren 18an, 22:00etan, Plateruenean.



Ekainaren 18an, 22:00etan Berrizko udaletxeko lorategian

IÑAKI PLAZA & JON GARMENDIA

'20 Hatz Proiekt Iñaki Plaza & Jon Garmendiaren lehenengo diskoa zuzenean entzuteko aukera izango da Berrizko udaletxeko lorategian. Tradizio-ko musika tresnak –soinua, txistua, alboka, txalaparta eta beraiek sortutako instrumentuak– eta zurezko zein plastikozko bidoien soinuak uztartzen dituzte. Horrela erritmo tradizional eta konposaketa berriak nahastuz testura eta soinu berriak bilatu nahi dituzte. Kepa Junkeragaz sei urtez jo ondoren abiatu dute musikariek ibilbide hau.

» **Dos (1980-90. hamarkadetako bertsoiak)** ekainaren 18an, 23:30ean, Misarben.

» **Soinua musika eskola** ekainaren 22an, 18:30ean, San Agustinen.

» **Musika Eguna** ekainaren 21ean, 17:30ean, Andra Mariko elizpean. Ekitaldia ikasle gazteekin hasiko da, eskolako bandak lagundurik. Ondoren, banda txiki eta gazteak.

ERMUA

» **'Ermua kantuan'** ekainaren 19an 12:30ean, kalejira Orbe kardenalaren plazatik.

» **'Alboka eguna'** hilaren 18an. Kontzertua Alboka musika eskolaren eskutik 22:00etan Orbe Kardenalaren plazan.

IURRETA

» **Nazioarteko Musika Eguna** ekainaren 21ean 15:00etan

umeen tanborrada Ekainaren 21ean **Musika Eguna** 15:00etan **umeen tanborrada** Sugarri fanfarriarekin, eta gero **kalejira** lurretako kaleetan. 19:00etan, **Cotton Club Dixie Jazz Band** Dantzari plazan.

ZINEKLUBA

DURANGO

» **'El concierto'**, ekainaren 24an, 20:30ean, Zugaza zinema aretoan ikusgai.

ERMUA

» **'Nacidas para sufrir'** Miguel Albaladejo zuzendariaren filma ekainaren 24an, 19:00etan eta 21:30ean, Lobiano Kultur Gunean ikusteko aukera.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Que se mueran los feos
Zuzendaria: Nacho G. Velilla.
barikua 18: 19:00/22:00
zapatua 19: 19:30/ 22:30
domeka 20: 19:30/22:30
astelehena 21: 19:00/22:00
martitzena 22: 20:00



Umeentzako zinea

Garfield y su pandilla 3D
Zuzendaria: Mark A-Z
Dippé
zapatua 19: 17:00
domeka 20: 17:00



BOTIKAK

- Barikua, 18**
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Zapatua, 19
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• De Diego/ Sagastizabal/ SanRoma/ Unamunzaga/ Campillo
Domeka, 20
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Astelehena, 21
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
Martitzena, 22
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
Eguaztena, 23
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguna, 24
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto ...945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
lurreta946 201 565
Taxi auzunea688 618 690

- UDALAK**
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
lurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
lurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

- Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

- 23° BARIKUA**
Zerua goibel agertuko da, bereziki goizean, eta bustitik jarraituko dugu. Iparhaizearekin iritsitako hodeiek euria utziko dute. Arratsaldetik aurrera atertzuz joango da eta zerua arinduz joango da.
21° ZAPATUA
Hodeiak gailenduko dira zeru-gainean. Giroa goibela nagusituko da, eta noizbehinka euri apur bat egingo du. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da. Temperaturak bere horretan jarraituko du.
18° DOMEKA
20° ASTELEHENA
22° MARTITZENA



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO

BAUTISTA PROMOZIOAK SUKALDEAK ETA BAINUGELAK



HILABETEKO DOAKO FINANTZIAZIOA

Udaberria da urteko sasoirik onena zure sukaldea edo zure bainugela berritzeko eta Bautistak are errazago jartzen dizu

www.bautistamuebles.com

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera) Urbitarte poligonoa 4 partzela, 2 pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

PROMOZIO HONEN FINANTZA-ERAKUNDEAREN ONESPENA BEHAR DU ETA 2010eko ELAINAREN 30a ARTE DAGO INDIARRÉAN.

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Eskukoracing errepidean

Aurretik ere bazebiltzan arren, 2008ko urrian ofizialdu zuten Durangoko Eskukoracing taldea. Iaz, taldeko hainbat piloto ibili ziren errepidean, baina beste talde bategaz, taldeak ez zuelako horretarako beharrezko lizentziarik. Aurten ahalegin berezia egin eta taldeari eskuderia izaera eman diote. Orain ez dute inori begira egon

beharririk; Eskukoracing izenagaz zeharkatuko dituzte Euskal Herriko errepideak.

Eskuderia legez aritzeak ahalegin mota asko eskatzen ditu; ekonomikoak, besteak beste. Krisi garaian babesle bila ibiltzea ez da lan samurra, baina "lau-bost babesle leial badauzkagu, eta guk geuk jartzen dugunagaz, ez gara kexatzen",

dio Alain Zenigaonaindia automobil-taldeko kideak.

Eskuderia estreinako urtean izaten dabilen erantzunagaz ere pozik daude. Iaz taldeko hiru gidarik korritzen zuten, eta aurten sei lagun dabilta bolantean. Antonio Gil (Citroen ZX) slalom eta mendi lasterketan dabil, eta gainerakoak slalomean bakarrik: Juan Lombrana

(Carcross RPM), Sergio Mugika (Citroen AX Sport) eta Oscar Revilla (Citroen AX Sport). Julen Dieguezek oraindik ez du lasterketarik korritu, baina laster hasiko da Mercedes 190Eagaz. Javier Moralesek Durangoko Klasikoan parte hartzeko asmoa eta ilusioa du, Seat 850 baten laguntzagaz. Mugika eta Lombrana Nervion eskuderiagaz ibili ziren iaz; Gilek eta Revillak haxe dute lehenengo urtea.

Aurten Bizkaiko eta Euskadiko Slalom Zirkuituan dabilta eta "espero baino emaitza hobek" izan ei dituzte. Oscar Revilla —gazte mailan dabil— Dimako lasterketan bigarren geratu ondoren, Derion podiumeko mailarik gorenera igo zen. Juan Lombrana ere ondo dabil. ■ J.D.

**Oscar Revilla
Diman bigarren eta
Derion lehenengo
geratu zen**

24 Oizpe txapelketako finalisten bila

San Pedro eta Santa Isabel jaien barruan jokatu dituzte Oizpe pilota txapelketako finalak; asteburuan eta datorren astean erabakiko dituzte maila guztietako finalistak.

25 Bidezabalek mailari eutsi dio

Bidezabalen emakumeen taldea ohorezko mailan ibiliko da datorren denboraldian ere. Avilesen, mailari eusteko adina puntu batu zituzten Durangoko klubeko atletak.

Oizpe txapelketako finalerdiak jokatu dituzte zapatuan

Nagusietan, Aldape mallabitarra Uriarte abadinarra izango du arerio



Peñas lizarratarak 22-12 menderatu zuen Aurtenetxe lezamarra final-laurdenetan. Kepa Aginako

Oizpe pilota txapelketako nagusien mailako finalerdiak bihar 22:00etatik aurrera erabakiko dituzte Berrizko pilotalekuan. Finalak ekainaren 27an, igandea, jokatu dira, San Pedro eta Santa Isabel jaietan.

Kaiolaren barruko lehenengo finalerdian eskualdeko pilotari bi izango ditugu aurrez aurre: Andoni Aldape mallabitarra eta Rober Uriarte abadiñarra. Biek txapelketa txukuna osatu dute orain arte, eta merezita heldu dira finalaren atarira. Abadiñarra, aurrelaria denez, ohituago dago aurreko koadroetan jokatzen, eta errekurtsio gehiago ditu. Aldapek lau t'erdiko marra bilatzen saiatu beharko du.

Bigarren finalerdian Beitia usansoloarra Peñas lizarratarren kontra ariko da. Biek ala

Bigarren finalerdian Beitia usansoloarra Peñas lizarratarren kontra jokatu du

biek nahiko erraz irabazi zituzten final-laurdenetako konpromisoak. Peñasek 22-12 irabazi zion Aurtenetxeri, eta Beitiak oraindik errazago azpiratu zuen Arribillaga elgoibartarra: 22-9. Finalerdi honek ez du pronostiko argirik; pare-pareko partidua dago aurreikusta.

Biharko Izarrak Oizpe bere unerik erabakiorrean sartu bada, Biharko Izarrak

txapelketako txapelek dagoeneko badituzte jabeak. Elezkano eta Merino dira aurtengo txapel-dunak. Merinok hautsi zuen partidua. Uztailaren 4an Aspegaz profesionalean debuta egingo duen pilotariak pilotakada latzak eman zituen. Azpimarragarria izan zen Jon Landaburu elorriarraren jarduna ere; esker txarreko lana ezin hobeto bete zuen.

Lau t'erdiko finalean, berriz, Urionaetxebarria 22-15 nagusi zitaion Jakari. ■ J.D.

Elezkano eta Merino dira Biharko Izarrak txapelketako aurtengo irabazleak

Hauslerrek irabazi du Emakumeen Bira

Claudia Hausler alemaniarrek irabazi du aurtengo Emakumeen Bira. Azkeneko etapara Judith Arndt heldu zen lider—Hauslerrekiko 12 segundoko aldeagaz— baina ez zen nahikoa izan. Hauslerrek Angulon gora ihes egin zuen, eta Urduña gainean lau minututik gorako aldea ateratzen zion Arndti.

Van Vleuden ere Hauslerrekin ibili zen, eta birako azkeneko etapa irabazteaz gainera sailkapen nagusiko bigarren tokira igotzea lortu zuen. Arndtek osatu zuen podiuma. Cristina Alcalde izan da lehenengo euskalduna, 46. postuan. ■ J.D.



Besoak jasota sartu zen Hausler Urduñako helmugan. Jon Iglesias

Iker Saenz de la Cuesta • Areto futbol entrenatzailea



Fitxaketak

Adituarentxokoa

Liga amaitu da talde guztientzako. Orain denboraldiaren balorazioa egin ondoren, bakoitzak bere akatsak aztertu beharko ditu, eta denbora galdu barik datorren denboraldirako planifikazio ona antolatu beharra dago.

Nesken areto futboleko gure taldeak ezin hobeto ibili dira, baina datorren urtean taldea osatzeko zailtasunak dituzte (jokalaria premia dago). Hori dela-eta badirudi ezin izango dugula berriz Kultural eta Kurutziagaren derbyrik ikusi. Kurutziagaren aldetik, udan ahaleginak egingo dira taldea kopurutsua egiteko.

Gizonei dagokienez, Kurutziaga A-n eta Sasikoa A-n aldaketa nabariak egin beharko dituzte euren taldeak indartzeko, ezin baitute urte honetako planifikazio-erakuntza errepikatu. Sasikoak, B taldeagaz eta fitxaketeekin sendotuko du taldea. Kurutziagak, berriz, B taldea desegingo du, eta lehen taldean zentratuko da (neskak ahaztu barik). Honek mugimendu asko ekarriko ditu Durangaldeko taldeetan (Mallabiak ezik, ia talde beragaz jarraituko duela baitirudi). Gainera, talde berria izango dugu bigarren erregionalean, Kurutziaga B-tik ateratako jokalariekin eginikoa. Azkenik, ikusi beharko da aurten hain ondo ibili den Mendibeltzek, Elorriokok eta Abadiñokok zer talde osatzen duten.

Kurutziagakook areto futboleko jokatu nahi duten neska-mutilak gure kluba ezagutzera deitzen ditugu; 2010-11rako aldaketa nabariak egin nahi ditugu eta zuen beharra dugu. Bestalde, espero dut udako fitxakete ez ekartzea iskanbilarik Durangoko taldeen artean, areto futbolak ez baitu horren beharrik.

Zortea guztiontzat, eta zuen baimenagaz, orain eta beti, Aupa Kuru!

Dima Golfeko Pitch&Putt zelaia inauguratuko dute

Ekainaren 24an irekiko dute ofizialki San Juan Pitch&Putt Txapelketaren bitartez



Pitch&Putt-ean jokatzen ez dago espezialista izan beharrik.

Inguruko herrietako alkateen, proiektua aurrera eramaten lagundu duten enpresen eta hainbat instituziotako ordezkarien babesagaz, ekainaren 24an, Dima Golfeko ofizialki inauguratuko du Pitch&Putt zelaia. Ekitaldia 12:00etan izango da. Ondo-

Inaugurazioaren ondoren, Pitch&Putt txapelketa jokatu dute

ren, luntxa egongo da bertaritzen direnentzako.

Arratsaldean, 18:00etatik aurrera, San Juan Pitch&Putt txapelketari ekingo diote. Parte hartzea irekia da; gura duenak eman dezake izena. Gerturaz diren guztiak izango dute, beraz, golf modalitate berezi horretan parte hartzeko aukera. 18:30etik aurrera txuletak erreko dituzte eta, beraz, parte-hartzaileek sabela ondo beteta jokatu dute Sanjuanetako txapelketa. ■ J.D.

Bidezabaleko neskek Estatuko maila gorenean jarraituko dute

Jaitsiera ekitideko adina puntu batu zituzten Avilesean jokaturako jardunaldi erabakigarrian



Bidezabalek 167 puntu batu zituen; maila galdu zuen Playas de Jandiak baino hiru gehiago.

Bidezabaleko emakumeen taldea ohorezko mailan —estatuko maila gorenean—lehiatuko da datorren denboraldian ere. Kluben arteko txapelketako lehenengo jardunaldi bietan emaitza kaskarrak lortu ondoren, Durangoko taldea kezkatuta joan zen Avileseko azke-

Natalia Ourmtaeva eta Arrate Lastrak irabazi egin zuten pisu jaurtiketan eta pertigan

neko hitzordu erabakiorrera. Hala ere, gehien behar zutenean, euren onena eman eta ohorezko mailako taldea direla erakutsi zuten.

Bidezabalek batera, Oviadok lortu zuen mailari eustea; Playas de Jandia eta Ourense, aldiz, jaitzi egin ziren. Bidezabalek ederto ekin zion jardunaldia-

ri, eta 20 probetatik hiru laurdenak joan ondoren, 22 puntuko aldea zuen jaitsiera postuekiko. Azkeneko probak, ordea, Bidezabal ahulen ibiltzen direnak ziren, eta aldea hiru puntura murriztu zuen Playas de Jandiak. Azkenean, zorionez, aurretik hartutako aldea nahikoa izan zen mailari eusteko.

Bidezabaleko atleten artean guztien gogo eta hainbaten jarduna azpimarratu behar dira. Pertigan Arrate Lastra bilbotarrak, bere ohiko markatik behera ibili arren —euriak erabat baldintzatu zuen proba—, lehenengo geratzea lortu zuen. Natalia Ourmtaeva eibartarrak ere ira-

Zortzi probatan bigarren geratu eta puntu baliotsuak batu zituzten

bazi egin zuen pisu jaurtiketan. Horrez gainera, bigarren postu baliotsuak lortu zituzten Irati del Rio (440 m. hesiak), Ane Miren Martínez (200 m.), Sandra Ingelmo (100 m. hesiak), Eva Iglesias (martxa), Soledad Donzino (luzera eta altura jauziak) eta errelebo emakumeek.

Jasone Munitxa, Ibone Hontoria, Geraxane Ussia, Pilar Garcia eta Iraia Beirok ere puntu inportanteak batu zituzten, bakoitzak bere arloan. ■ J.D.

Errugbi Tag Eguna, bihar, merkatu plazan

Durangoko Rugby Taldea Durangoko hainbat ikastetxeekin lanean aritu da, errugbia ezagutarazten, tag modalitatearen bitartez. Aurten Landako ikastetxe, Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko, Kurutziaga ikastolako eta Jesuitak ikastetxe 1.771 gaztetok parte hartu dute.

Ekimenari amaiera emateko, bihar 16:00etan hasita, Tag Errugbi Eguna antolatu dute merkatu plazan. Lehen hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleek eta bigarren hezkuntzako lehenengo mailakoek parte hartuko dute. ■ J.D.

Txaraka gogoratzeko proba, Urkiolara

Serafin Amezua "Txaraka"-ren oroimenez, Urkiolako VI. Igoera antolatu du domekan Bidezabal atletismo klubak. Lasterketa 10:00etan hasiko da, Zelaian. Izen-ematea aurretik eginez gero, 6 euro da (*inscripciones@bidezabal.com*); bertan, aldiz, 10 euro (lasterketa hasi baino 45 minutu lehenago amaituko da epea).

Lasterketak hiru kategoriaz izango ditu: gizonak, emakumeak eta beteranoak. Gizon zein emakume irabazleak 150 euro irabaziko ditu; bigarrenak 100 euro, eta hirugarrenak, berriz, 75 euro. ■ J.D.

BCN Sports Film jaialdiak Bideografiken dokumentala saritu du

'Psicobloc: ur sakonetako bakardadea' lanak mendiko kirolen film onenaren saria jaso du



David Maeztu, saria jasotzen, Bartzelonako jaialdian.

Durangoko Bideografik Ekoizpenak enpresak egindako *Psicobloc: ur sakonetako bakardadea* dokumentalak abentura eta mendi-kiroletako film onenaren saria jaso du BCN Sports Film nazioarteko jaialdian. Guztira, 100 film aurkeztu ziren lehiera. Jaialdia World FICTS Cha-

llenge 2010 delakoaren zati bat da: 14 jaialdiz osatutako nazioarteko jaialdia da, eta denetan kirolekin lotutako ikus-entzuzko ekoizpenak dira oinarri.

Saritu duten lan horregaz Lekeitioko Bileran dokumental profesionalik onenaren saria ere irabazi zuten. ■ J.D.

Bartzelonak irabazi zuen Kluben Arteko Txapelketa

Kataluniarren arteko final estuan Bartzelonak 65-59 menderatu zuen Juventut; kiroldegia lepo bete zen partiduz gozatzeko

Kadeteen estatu mailako saskibaloitxo txapelketa Bartzelonak irabazi zuen. Finalean Juventut izan zuen aurrez aurre, eta oso partidua lehiatua jokatu zuten. Azkenean, 65-59 nagusitu zen Bartzelona.

Domeka eguerdiko finalean aurretik, La Caja eta Cai Zaragoza hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partidua jokatu zuten. Partidu horretan erraz nagusitu zen La Caja taldea (85-64).

Landako kiroldegian garatu den txapelketa arrakastatsua izan da. Finalean goraino bete zen Landako kiroldegia, eta gainerako partidua askotan ere jende asko hurreratu da txapelketa bertatik bertara jarraitzeko. ■ J.D.



Bartzelonako jokalariek pozarren ziren txapelketa irabazi ondoren. Kepa Aginako

laguntzaileak



ABADIÑOKO UDALA



ATXONDOKO UDALA



DURANGOKO UDALA



ELORRIOKO UDALA



MALLABIKO UDALA



ZALDIBARKO UDALA

LAUHANKA[>]



Kaiolak espazio zabala izan behar du ondo mugitzeko

Jostailuak edukitzea komeni da, bestela aspertu egiten dira

Papagaiari bakardadeak antsietatea sortu diezaioke

Papagaiak konpainian egotea du gustuko

Papagaiak oso lagunkoiak, aktiboak eta berritsuak dira. Inguruko estimulua behar dute.

Papagaiak koloretsuak, aktiboak, berritsuak eta lagunkoiak izaten dira. Hori dela-eta, askok maskota moduan izatea gustuko dute.

Aukeratu aurretik

Papagaia erosi aurretik zure gustuak, animalari eskaintzeko duzun denbora eta zure ezaugarriak kontutan eduki behar dituzu, eta papagai espezie asko daudenez, norberarentzat aproposena aukeratu.

Gainera, kontutan eduki behar da papagaiak urte askoan bizi direla, 50 bat urtean hain zuzen ere, eta arreta iraunkorra behar dutela. Papagaia denbora luzean bakarrik egon behar bada, hobe da beste animalia bat aukeratzea, izan ere, bakardadeak antsietatea sortu diezaiotke, eta gaixotu daitezke.

Kaiola

Papagaiak espazio handia behar du mugitu ahal izateko, egokiena hegoak luzatu ahal izateko lekua izatea da. Papagaiak, kaiolako makilan dagoenean, ez du buztanagaz lurra ikutu behar. Kaiolan bi makila egon behar dira, eta diametroak papagaiak duen hanken lodieragaz bat egin behar du. Kaiola garbi mantendu behar da, egunero janari hondarrak eta kaka garbitu egin behar dira. Hilean behin edo birritan lixiba eta amonioko-agaz kaiola desinfektatzea ere komeni da.

Bestalde, kaiolan jostailuak edukitzea komeni da, oso mugituak izanik, bestela aspertu egiten baitira; ohikoan kriskitina, zurezko eskailerak, sokak, txintxaunak... dira. Kaiolaren kokagunea garrantzitsua da, alde batetik papagaiaren lumak

ondo egoteko beharrezkoa dute eguzkia hartzea. Baina bero handia egiten badu, itzaletan hobe daude. Bestalde, entretenigarria den toki batean ipini behar da kaiola; jendea egongo den toki batean, esaterako.

Jatekoari dagokionez, orkatua izan behar du, txandaka eman ahal zaizkio papagaientzat beren beregi prestatutako janaria eta jaki freskoak; hala nola, lekaleak, fruituak eta zerealak.

Soinuak imitatu

Papagai guztiak ez dira berba egin edo soinuak imitatzen gai, espezie batzuk erraztasun handiago daukate beste batzuek baino. Hori bai, beharrezkoa da pazientzia izatea, konstanteak izatea, egunero 10 minutuko 'eskolak' ematea eta hitzak ondo eta nabarmen ahoskatzea, apur bat exageratuz.

Txakur bat oparitu didate eta tripan koskor bigun bat duela ikusi dut. Normala da? Andrea (Elorrio).

Zure txakurrak daukan koskor bigun hori zilborraren inguruan baldin badago, ziurrenik zilbor-etena du. Hau da, bertan zilbor-hestea zegoen, eta txarto itxi zaio. Lehenengo eta behin, txakurrak duen zulorean taimana zenbatekoa den begiratu beharko litzaioke, zuloa itxteko ebakuntza beharko duen ala ez balortzeko. Izan ere, txakurrak zilbor aldean daukan zuloa handia bada, sabelaldeko barruko organoak herniatu daitezke.

Bidali zuen galderak helbide honetara (izena eta herria ipinita):

astekaria@anboto.org



Alberto Cimarro
Etorbide Albaitari klinika



hortz klinika

Ekooden

Jatean hortz-protesiek ikararik ez egitea gura baduzu, geuregana jo. Kirurgia egin eta biharamunean bertan, **“all on four” Konponbide behin betikoa** erabilita, lau inplantegaz bakarrik, protesia hezurrari **ondo lotuta izango duzu**

**AZKARRA - MERKEA
MINIK ERAGIN BARIK**


**EZ GARA INOREN FRANKIZIA
ARDURA OSOZ DIHARDUGU**



Arkotza kalea, 4 behea DURANGO
Tel.: 94 621 78 22

www.clinicaekoden.com

DENPORAPASAK >

		Hunki-garriak *Irudiko hondartza	Udalerrria Mihisea	Miatua
Argizagi				
Eme!				
Liskartsu	Arloa			
Bertzak	Irristakorra			
Siberiako basoa			Bokala	
Sindikatu abertzalea			Kanpo	
		Bokala	Patuaren erdian	
		Urania	Bizkaieraz, iratzea	
Zauriak eragin				
Eguzki				
		Kontso. bikoitza		Bokala
		Xume		Kez bete
Senideak				
Bidaiaren atal				Gabezia
			E birritan	
			Einstenioa	
Sufrea	Txerri ar			
Pegar	1			
			Garra	

1

3			6	1
	8	4	9	
2	7		1	5
5		6	9	2
		2		7
7	6		4	5
3			8	7
9	2		3	
		8	4	5
				3

2

2			9	4
1	4		9	
9			7	
3	8	1	4	6
2				3
			6	5
6	1	7		
		6	2	3
				8
				6

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Ezin duzu ulertu zelan heldu zaren egoera horretara. Aste honetan gauzak argitu daitezke zuretzat, beraz, adi egon.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Inoiz pentsatuko ez zenuen berri bat jasoko duzu, eta horrek ikuspuntua aldatzea ekarriko dizu.

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Egoeraz nazkatuta zaude, ez zara lehengo bera, baina ez zaizu beste erremediorik geratzen. Erabakiak hartzeko aste egokia da.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Zu zara zure jokabideen erantzule, normalean ez zara horretaz ohartzen, baina zure ikuspuntua aldatzeko momentua duzu.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Maite dituzun pertsonekin egoteko denbora gutxi duzula-eta, triste samar zabilzta aspaldion. Laster izango duzu aukera.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Hartu ezazu telefonoa. Esateko duena entzun beharko zenuke lehenengo, eta gero hartuko duzu zuretzat egokia dena.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Alai baino alaiago zabilzta, baina kritikak jasoko dituzu aste honetan, ez eman duena baino garrantzi handiagoa.

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Bizarreko minak ez dizu orain arteko errotmoa jarraitzen uzten, lasaia hartu eta esfortzurik ez egin.

Sagitaris
azaroak 24 - abenduak 23
Motibatuko zaituen ilusio edo helbururen bat hartu behar duzu, bestela, aspertu eta tristetuko zara. Egin kasu zure senari.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Espero duzun albiste ez da iristen, baina lehenago edo geroago jasoko duzu, beraz, ez egon horretan pentsatzen.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Ziur egon arte ez jo aurrera, nahi ez duzun erantzun bat jaso dezakezu bestela, eta horretarako presente egon behar duzu.

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Gustuko duzun pertsonagaz egoteko aukera izango duzu, ez galdu aukera.

ZORION AGURRAK > agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Zorionak **Uri**. Holako sinpatika jarraitu dezazun patxo asko izeko, osaba eta lehengusinarekin partez.



Tituloak kubatekin ospatzen eiz dituen Koikilirekin jarraileari zorionak Mari Carmen, Carmen eta Marianaren partez.



Hurakan mexikar honen jarraitzaileek Carmenek, Alaznek eta Itsasok **Anahi** zoriondu gura dute. Zorionak!




Ana eta **Rusti** ezkontzen zaizkigu, koadrilakoekin despedida ekainaren 26an izango da. Zorionak bikote!



Zorionak Txirri! Ekainaren 16an gure **Ekaintxu** txikiak bi urte egin zituen. Patxo handi handi bat eta besarkada bat familia guztiaren partez.



Miryam Elexpek ekainaren 18an 38 urte egingo ditu. Zorionak eta musu pila bat danon partez. Trago bat zor diguzu.



Idoia Azkorbebeitiak ekainaren 22an urteak egingo ditu. Bere familiaren partez eta bereziki iloba eta alabaren partez zorionak.



Argazkiko osaba **Cesarrek** urteak egingo ditu ekainaren 21ean eta izeko **Karmenek** ekainaren 17an. Familiaren partez zorionak eta ondo pasatu.



Joan zen ekainaren 12an Ebroko **Eneko Cebrian** "gure diputatue" eta Txarroako **Iraide Iriondo** "kondesa" Oromiño-ko San Marko ermitan ezkondu ziren. Eguzkiarik barik, baina oso ondo pasatu genuen. Orain arte bezain zoriontsu izan.



Ameliak atzo urteak egin zituen. Zorionak familiaren partez. Oporretatik bueltan bazkari gozo bat espero dugu. Ondo pasa oporretan.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia ematea.

Zorionak **Luiseri**. Aste honetan zotz egin dugun tarta zeuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu.



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.
Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Kanpazar Erretegia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko 11 euro



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.



Iñaki Sánchez
Irakaslea

"Ameriketatik etorrita, etxean ez zidaten utzi gura bakeroak janzen"

AEBetan 10 urte egin zituen Claudio Abanzabalegik. Cowboy petoa da gaztetako argazkietan. Aurten Boisera doa.

Oraindik asko gustatzen zaio janzkera bakeroa Claudio Abanzabalegiri. Hamar urte egin zituen AEBetan ardiak eta behiak zaintzen. Euskal Herrira bueltatu eta Durangon Dallas taberna zabaldu zuen. 34 urte Ameriketara joan barik egon eta gero, uztailan Boiseko Euskal Jaira doa.

Zelan, ba, Ameriketara?

Nire arreba Pete Zenarruza Idaho-ko estatu idazkari ohiaren osabagaz dago ezkontuta, eta Zenarruzak esan zien mutil bat behar zutela ganaduagaz beharra egiteko. Nik, hasieran, ez neukan gogo handirik, hemen ere pinudietan egiten nuelako lan, baina azkenean animatu egin nintzen. Ardiekin eta behiekin hasi nintzen lanean, 1958an, Kalifornia hegoaldean.

Batetik bestera ibiltzen zinen ganaduagaz.

Idahotik neguan joaten dira Kaliforniara, ardiekin eta behiekin. Han hilebete egin eta udaberrian Las Vegas ondoan dagoen desertura joaten ginen. Udaberrian eurria egiten du han, eta oso polita egoten da. Hile bi egin eta gero Idahora joaten ginen; han mendi altuetan eta ibiltzen ginen.

Zer zen gogorrena?

Udaberria; bildotsak loditzeko garaia. Desertuan ere bizkor ibili behar genuen. Han ez dago jaberik, eta 50.000 ardi egoten ziren, beharbada, guztira. Leku onena harrapatzeko goizean goizetik ibili behar genuen. Guegon ginenean artzain guztiak euskaldun gazteak ginen. Orain ganadu gutxi eta euskaldun gutxi dago han.

Zenbat urte egin zenituen han?

Hiru urte egin nituen artzain eta artzainen nagusi. Denbora horre-

tarako baimena neukan, eta hona bueltatu nintzen. Beste hiru urterako joan nintzen gero, eta Pete Zenarruzak denbora gehiagorako baimena lortu zidan; *green card* delakoa. Beste zazpi urte egin nituen. Hona etorri eta berriz buelta egitea pentsatu nuen, baina, azkenean, bertan geratu!

Zelan izan zen hori?

Durangon etxe bat neukan, eta haren eskriturakegitoko kontratistagaz berbetan, lonja bat erosteko aukera sortu zen. Anaiari taberna jartzeko deitu nion, eta, h a l a n , D a l l a s zabaldu genuen, arrebak eta familiakoek konbentzitu.

Mitiko a bihurtu da taberna.

Bai, zabaldu zenetik izan da nahiko famatua. Zabaldu genuenean esan zidaten: "Ene, Durangotik hain urrun, hor ez dok negozioirik egongo, laster Ameriketara joan beharko dok atzera!" Eta gero jende pilo a etortzen zen. Baina tabernako lana oso lotua da. Berandura arte egoten ginen, gainera; bostak, seiak, zazpirak... horretarako gaztea izan behar da!

Nondik dator Dallas izena?

Denver edo Dallas pentsatu nuen.

Kazetari lagun bati galdetu nion, eta

esan zidan Dallas famatuagoa zela Kennedyhan hil zutelako. Kennedy hil zutenean AEBetan nengoen ni.

Hona etorri zinenean 'amerikanoa' esango zizuten.

Bai, lehenengotan bai. 'Albizko amerikanoa' nintzen. 1962an, etorri eta gutxira, Gernikako azokara joan nintzen, eta arrebak ez zidan utzi gura bakeroekin joaten. Esan nion horrela joango nintzela, eta bakeroak, 30 urte pasatuta, hemen ere denek jantziko zituztela! Bakero zuriak ere janzen nituen. Hemen jendeak jantzi ilunak janzen zituen. Lehenengoz buelta egin nuenean, Madrilerela heldu eta itzeleko diferentzia igarri nuen: jendea traje beltzekin, txikiak, gose antzekoak... Etxera etorri eta amak triste ikusi ninduen. Gure ama eta aita beltzik jantzita eta triste ikusi nituen baserrian, eta tristura handia sartu zitzaidan. Amari ez nion inoiz esan jantziengatik zela.

Ameriketako anekdota asko izango duzu.

Idahora bidaltzeko ardiak Las Vegas erdi-erdian kargatzen genituen. Orduan ez zen oraingo laurdena ere, baina ikusgarria zen. 1967an, ugazabak eta nik hiru egun egin genituen lo egin barik. Egunez ardiak kargatzen egon, eta gauez neska batzuekin joaten ginen Las Vegasera. Hiru egun lo egin barik eginda, Idahora eraman nituen kotxez bost artzain, trenean joan ziren ardiak hartzeko. Gidatzeko lo ez egiteko pastilak hartu nituen. 1.500 kilometro! Ardiekin nengoela, Pete Zenarruzaren abonetak itzartu ninduen gero.

Claudio Abanzabalegi

Albizkoa (Mendata) jaiotzez

Durangoko Dallas taberna zabaldu zuen

Endurance

Harry Sarandon pertsona arrunta da. Batzuetan, zergatik ez dakien arren, tristura moduko batek eraso egiten dio. Halakoetan, Ernest Shackleton esploratzailearekin gogoratzen da. Gizon adorettsu honek, XX. mendearan hasieran, Antartida zeharkatzeko asmotan, abentura izugarriari ekin zion, Endurance (erresistentzia) izeneko itsasontzian. Bidaian hamai-ka oztopo izan ostean, izotzak harrapatuta geratu ziren. Hotzak akabatuta, kanpoko inorekin harremanik izan gabe, goseturik eta askotan paisaia izoztuetan galduta igaro zituzten egun luzeak eta gau luzeagoak. Horrela, arrisku bizian egonda, agintepan zituen gizon ausartek bizirik jarraitzeko, errutinari eutsi zioten. Eguneroko egunero, disziplinaz eta umorez lan eta zeregin sinpleetan beldurriari eta etsipenari aurre egitea lortu zuten, gogo eta animoa mantenduz. Azkenik, gorriak eta bi pasatu eta gero, salbatu egin ziren, Historian gertakari miresgarriak idatziz.

Harryk ere jakin badaki tristuran eta sasoi grisetan eguneroko ardurak eta egiteko monotonoak oso lagungarriak direla, ilusioa berreskuratu bitartean, iluntasuna eta goibeldura gaintu ahal izateko. Eguneroko egin beharreko lantxo aspergarri eta errutinarioak betez, kezka eta ezinegona arintzen dira, baita batzuetan penak ahaztu ere, gogoan irribarrea noiz agertuko zain. Azken batean, sarritan, erresistentzia garaipena da. Harryk badaki bizitzak beti aukera berriak eskaintzen dizkiola pazientzia duenari. Errutina irakasgaia ere badugu!



- **TEORIKOA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK**
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan, %99k gaintzen du.
- **CAP ikastaroak profesionalentzat**
- **Teoriko orokorra euskaraz ONLINE**

HEMEN GAUDE:

Urarka kalea, 20 • Tel.: 94 658 34 41 • ELORRIO